



Bizikidetza baketsua eraikitzeko begiradak


GIDA DIDAKTIKOA - DBHko 4. maila eta batxilergoko 1. maila

«Memoria, ikuspegi feminista lokal-global batetik, bizikidetza baketsua
eraikitzeko tresna gisa» proiektua



baketik

E LANKIDETZARAKO ETA
ELKARTASUNERAKO
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACION Y
SOLIDARIDAD



AURKIBIDEA

Aurkezpena	5
Norentzat? Zertarako?	5
Nola funtzionatzen du?	5
1. MODULUA: OINARRIAK ERAIKITZEN	6
1. ARIKETA: Stop!	7
Indarkeria-motak	8
Orduan, bakea indarkeriarik eza al da?	9
2. ARIKETA: Eztabaida abian	10
3. ARIKETA: Giza eskubideak ezagutzen	11
Giza eskubideak	11
2. MODULUA: MOTIBAZIO POLITIKOKO INDARKERIA	13
Zer da motibazio politikoko indarkeria?	14
Euskadiko gatazka	15
1.1. ARIKETA: Galdetuz ikas dezagun: Euskadiko kasua	17
Latinoamerikako herrialdeetako gatazkek	20
Kolonbiako gatazka	20
El Salvadorko gatazka	21
Guatemalako gatazka	23



1.2. ARIKETA: Galdetuz ikas dezagun: Erdiko Amerikako kasuak	27
2. ARIKETA: Urraketak identifikatzeko ariketa	29
3. MODULUA: EMAKUMEAK MOTIBAZIO POLITIKOKO INDARKERIAKO	
AGERTOKIETAN	30
1. ARIKETA: Rol-aldaketa	31
2. ARIKETA: Rolen konplexutasuna	33
3. ARIKETA: gatazkan izandako genero-indarkeria eta sexu-indarkeria . . .	34
ERANSKINA: <i>Emakumeen parte-hartzea memoriaren eraikuntzan,</i> <i>Euskadiko eta Guatemalako esperientziak</i> ikerketaren zatia	35
Emakumeak, gatazka eta rolen konplexutasuna	35
Amak	35
Zerbitzariak	39
4. MODULUA: BAKEGINTZA-PROZESUAK	40
1. ARIKETA: <i>Mariposas en el Hierro</i> dokumentala	42
2. ARIKETA: Podcast-saioa	43
5. MODULUA: BIKTIMAREN FIGURA ETA MEMORIA	44
Justizia trantsizionala	45
Justizia errestauratiboa	46

1. ARIKETA: <i>Ozpinaren sindromea</i> zineforuma	47
2. ARIKETA: Rol-dinamika	49
ITXIERA. IKASKUNTZAREN PERLAK	50
Ixteko dinamika: Ikaskuntzaren perlak.	51
BIBLIOGRAFÍA	52
Ikus-entzunezko baliabideak eta material osagarria	55



Aurkezpena

Gida didaktiko hau «Memoria, ikuspegi feminista lokal-global batetik, bizikidetzak baketsua eraikitzeko tresna gisa» proiektuaren barruan sortu da. Mugen Gaietik da proiektuaren arduraduna, Baketik erakundearekin elkarlanean, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak finantzatuta dago. Gida hau irakasleek bakeari eta bizikidetzari buruzko arloan tresna gisa erabiltzeko proposatzen da. Ildo horretan, berritasun bat dakar, alegia, genero-ikuspegia barne hartzen duela eta bai toki-mailako bai mundu-mailako kasuak eta esperientzia-ekarpenak barne hartzen dituen ikuspena erabiltzen duela. Zehazki, Euskadiko eta Kolonbia, Guatemala eta El Salvador herrialdeetako kasuak aztertzen dira.

Norentzat? Zertarako?

Gida hau DBHko 4. mailako eta batxilergoko 1. mailako ikasleekin jorrazteko diseinatu da. Proposamen honetan herritartasunaren gaitasuna lantzen da, zeinak barne hartzen baitu «giza eskubideen errespetuan oinarritutako kultura demokratiko baten berezko balioak modu kontzientean bereganatzea» (Hezkuntza Ministerioa¹). Gazte-talde horiekin lan egingo denez, gida honen helburua da kontakizunean nagusi diren diskurtsoen marjinetan badiren diskurtsoak eta errealitateak aintzat hartzen dituen gogoeta bat sustatzea. Era berean, giza eskubideak oinarri argumentaltzat hartzen dituzten eta gizartean dauden jokabideak eta jarrerak birplantearazten dituzten irakurketak normalizatzea du xede.

Nola funtzionatzen du?

Dokumentu hau bost modulutan eta amaierako ixte-ariketa batean egituratuta dago.

1. Oinarriak eraikitzen
2. Motibazio politikoko indarkeria
3. Emakumeak motibazio politikoko indarkeriako agertokietan
4. Bakegintza-prozesuak
5. Biktimaren figura eta memoria
6. Itxiera: ikaskuntzaren perlak

Modulu bakoitzak irakasleentzako atal teorikoa bat dauka, testuinguruan sartzeko balio duena, baita ikasleekin lan egiteko diseinaturiko ariketa batzuk ere. Halaber, jorratutako gaiari buruzko erreferentziako material osagarria (bideoetarako, artikuluetarako eta abarretarako estekak) eskaintzen da. Hasiera batean moduluak ezarritako hurrenkeran lantzeko diseinatuta dauden arren, irakasleak hurrenkera alda dezake edo moduluetako batzuk bakarrik hauta ditzake.

Era berean, emandako ariketak taldearen beharretara eta egoerara egokitu daitezke edo bideratzaileak eroso sentiarazten dutenak bakarrik hauta ditzake.

¹ Espainiako Gobernuak Hezkuntza Ministerioak bai DBHko curriculumean bai batxilergokoan sartu du herritartasunaren gaitasuna. Hemen eskuragarri: <https://educagob.educacionyfp.gob.es/curriculo/curriculo-lomloe/menu-curriculos-basicos/ed-secundaria-obligatoria/competencias-clave/ciudadana.html> <https://educagob.educacionyfp.gob.es/curriculo/curriculo-lomloe/menu-curriculos-basicos/bachillerato/competencias-clave/ciudadana.html>

1. modulua:



**Oinarriak
eraikitzen**

Lehen modulu honen helburua da ikasleek dauzkaten balioetara hurbiltzea eta gainerako edukia garatzeko oinarritzat baliatuko ditugun kontzeptuak aurkeztea. Beroketa-ariketa gisa, proposamen hau dakargu:

1. ARIKETA: **Stop!**

Iturria:: Pauko Kultura Eskola.

Hezkuntza-asmoa:

- Gida honetan landuko ditugun kontzeptuei buruz dauzkagun aurretiazko ezagutzez gogoeta egitea.
- Garrantzitsuak iruditzen zaizkigun eta sarritan erabiltzen ditugun kontzeptu batzuen irudi estereotipatuak eta sakontasun eskasekoak eduki ohi ditugula behatzea.

Zenbatetsitako denbora: 40 minutu.

Beharrezko materiala: paperak, arkatzak.

Garapena:

Parte-hartzaileak lauzpabosteko taldetan banatuko dira. Jarduera dinamizatzen duen pertsonak «kultura», «indarkeria», «bake», «bizikidetzak» eta «gatazka» kontzeptuak aipatuko ditu, banan-banan, talde bakoitzak kontzeptu bakoitzarekin erlazionatutako zazpi ezaugarri idatz ditzan ahalik eta azkarren eta aldi berean. Taldeei esan behar zaie amaitzean «Stop!» oihukatu dezatela, zazpiak azkarren aurkitzen dituen izango baita irabazlea.

Komenigarria iruditzen bazaizue, beste kontzeptu batzuk gehi diezaiokezue zerrendari.

Ariketa amaitzean, ateratako hitzak irakurriko dira eta taldean hausnartzeko galderak egingo dira: zergatik pentsatu dute hitz horietan? Badago bereziki deigarria iruditzen zaigun hitzen bat? Kontzeptuak definitzeko balio duten hitzak dira ala gehienbat uste estereotipatuak dira? Usteak badira, irudi positiboa, negatiboa ala neutroa konnotatzen dute? Hitzak errepikatu egiten al dira?

Ariketa egin ondoren, kontzeptuen ideia sakona ala azalekoa daukagula iruditzen zaigu?

Beste jarraibide batzuk:

Jarduera honen asmoa da aztertu nahi ditugun kontzeptuen gainean ikasleek dauzkaten aurretiazko ideiak identifikatzea. Hori dela eta, garrantzitsua da azpimarratzea jarduera oso azkar egin behar dela. Ebaluazioa egiten denean, ariketaren ondorengo galderetan, nabarmendu daiteke jolasaren azalpenean talde azkarrenak «irabaziko duela» esan den arren ez dela lehiatzeko jolas bat; aitzitik, asmo ezkutua bat zegoen: beren ideiak espontaneoan ateratzea. Asmoa koaderno guztia lantzea bada, interesgarria izango da kontzeptu bakoitza (indarkeria, kultura, bakea eta abar) aurkeztu ahala ariketaren emaitzei erreferentzia egitea.

Indarkeria-motak

Gatazkaren azterketan pisurik handiena duten kontzeptuetako bat indarkeria da. Hala ere, zuzenean erabiltzen den indarkeriaz haraindi —hots, indarkeria fisiko gisa, ahozko indarkeria gisa edo indarkeria psikologiko gisa identifikatzen denaz haraindi—², egiturazko indarkeria eta indarkeria kulturala ere badauzkagu.

Egiturazko indarkeria deritzo gizabanakoari bere beharrak betetzea eta bere jarduerak garatu ahal izatea eragozten dioten egitura eta erakunde sozial, ekonomiko eta politikoei. Gizarte-desparekotasunak edo oinarrizko zerbitzuen falta (hala nola hezkuntzaren edo osasunaren falta) egiturazko indarkeriaren forma batzuk dira. Egoera horrek tentsio sozialak sortzen ditu³.

Azkenik, indarkeria kulturala deritzo sinesmen kultural eta erlijiosoetatik eta gizartearen alderdi sinbolikoetatik sortzen denari. Indarkeriaren kultura ere esaten zaio⁴ eta gainerako indarkeriak justifikatzen ditu⁵. Horrela, hiru indarkeria-mota horiek (zuzenekoa, egiturazkoa eta kulturala) elkarrekin erlazionatua daude eta indarkeriazko gurpil zoro bat eratzen dute⁶.

Adibide honek indarkeriaren hiru formak kasu batean identifikatzen lagunduko digu: *Black Lives Matter* mugimenduak eta horren modukoek salatzen duten egoerez ari gara. Ulertzen da afroondorengoen komunitateak pairatzen duen zuzeneko indarkeria polizia-erakunde arrazistaren ondoriozkoa dela (egiturazko indarkeria) eta nagusitasun arrazistari buruzko sinesmen kulturalak justifikatuta dagoela (indarkeria kulturala).

Indarkeria azaltzen den hiru forma horiek barne hartzen dituen definizio bat edukitzeko, baliagarria suerta dakiguke indarkeria honako hau dela pentsatzea: «gizakiari pertsona den aldetik funtsezkoa zaion zerbaite (osotasun fisikoa, psikikoa edo morala, eskubideak, askatasunak...) urratzea edo kentzea dakarren jarrera edo portaera» [Bakerako Hezkuntzaren Mintegia, 2000].

2 Ikusi: Calderón, P. [2009]. «Teoría de conflictos de Johan Galtung». Paz y Conflictos aldizkaria, 2. zk., 75. or.

3 Ikusi: Stanford Encyclopedia of Philosophy [2023]. Pacifism. <https://plato.stanford.edu/entries/pacifism/>

4 Ikusi: Pauko Kultura Eskola. Violencia. <https://escolapau.uab.cat/ca/violencia-2/>

5 Ikusi: Calderón, P. [2009]. «Teoría de conflictos de Johan Galtung». Paz y Conflictos aldizkaria, 2. zk., 75. or.

6 Ikusi: Galtung, J. [2003]. Violencia Cultural. Gernika-Lumo, Gernika Gogoratuz.

Orduan, bakea indarkeria eza al da?

Galdera horri erantzuteko, modulu honetako funtsezko beste kontzeptu batean sakondu behar dugu, alegia, gatazkan. Sarritan, gatazka zuzeneko indarkeriaren ideiekin eta dinamika suntsizailleekin lotuta egoten da. Pentsa litekeena ez bezala, bake-kultura batean ere gatazka badago presente, baina «bi alderdiren edo gehiagoren beharren, helburuen, interesen edo iritzien kontrajartze» gisa (Baketik, 2007). Kontrajartze horiek sortzen dira gizarteek osatzen dituzten banakoen eta taldeen arteko desberdintasunak dituztelako ezaugarri.

Gatazkek gora egin eta indarkeria justifikatzen den fase batean sartzeko, ezinbestekoa da etsaiaren irudia alde aurretik sortuta egotea. Mekanismo berezi hori kontrakoa pertsona-izaeraz gabetzean datza, etsaitzat bakarrik hartzea pasatzeko. Nigandik desberdintzat hautematen dudana «bestea» nire etsai bihurtzen da. «Besteari» gizatasuna kentzeko prozesu bat gauzatzen da eta, horretarako, pertsona pertsona izateagatik dagokien eskubide oro kentzen zaie. Hor jartzen da arriskuan bake-kultura batek bereizgarri duen bizikidetzat.

Gizarte demokratikoek, zeinek bake-kultura baten alde egiten duten, ikusi dute etsaiaren irudia sortuta polarizazioa, alegia, jarreran arteko liskarra, polarizazio toxikoa bihurtzen dela⁷. Gaur egun, gizarte askotan goraka ari den fenomeno da eta ikusten da polarizazio toxikoak indarkeriaren naturalizazioa dakarrela⁸.

7 Ikusi: ICIP [2023]3(30). Pensar diferente no nos hace enemigos: nuevo audiovisual sobre los riesgos de la polarización tóxica. <https://www.icip.cat/es/pensar-diferente-no-nos-hace-enemigos-nuevo-audiovisual-sobre-los-riesgos-de-la-polarizacion-toxica/>

8 Lan honetan oinarrituta: Barbero, A. et al. [2006]. «[Deconstruir] la imagen del enemigo». *Cuadernos de educación para la paz*. Pauko Kultura Eskola. 3. or.

2. ARIKETA:

Eztabaida abian

Iturria: Edualter

Hezkuntza-asmoa:

- Gatazkak kudeatzen ditugun modua eta eraginkortasunez kudeatzeko tresnak identifikatzea.
- Desadostasunik dagoenean indarkeria (ahozkoa, fisikoa...) justifikatzeari buruz gogoeta egitea.

Zenbatetsitako denbora: 40 minutu.

Beharrezko materiala: eduki multimedia bistaratzeko pantaila bat. Oztoporik gabeko leku bat, ikasleak mugitu ahal izateko.

Garapena:

Polarizazio toxikoaren gaia aurkezteko, egungo gizartean, non gatazka eta iritzien polarizazioa eraginkortasunez kudeatzeko bideak gero eta ezohikoagoak baitira, izan den bilakaera erakusten duen bideo bat ikusiko dute. *Riesgos de la polarización tóxica: cómo hacerle frente* bideoa erreproduzitu ondoren, ikasleei galdera hauek egin diezazkiekegu gaiari buruzko eztabaida bat has dezaten: nola tratatzen ditut pentsaera desberdina dutenak?, nire lagun-taldeak duen iritziauren aurkakorik adierazteko gai al naiz?

Talde-gogoeta amaitutakoan, ikasleak zutik jarriko dira eta abian eztabaidatzeko dinamika azalduko diegu. Dinamika egiteko, irakasleak baieztapen batzuk irakurriko ditu ozenki eta ikasleek baieztapenoi buruzko beren iritzia eman beharko dute. Gelaren mutur bat «oso ados» dagoen taldearen lekua izango da eta kontrako muturra, berriz, «batere ez ados» dioenaren lekua. Bakoitzak bi puntuen artean kokatu beharko du, baieztapen bakoitzarekiko bere adostasun-mailaren arabera. Dinamika etsaiaren irudiaren sorketaren eta polarizazio toxikoaren gaira bideratzeko, baieztapen hauek erabiliko dira:

- «Ni baino kalteberatasun-egoera handiagoan dauden pertsoneri eraso egiten diet».
- «Norbaiti eraso egin diezaioket nire ideiak eta nire taldea lehenbizikoak direla sentitzen dudalako».
- «Ez naiz lerratzen taldearen botererantz. Nahiago dut bakarrik geratzea nire balioen kontra doazen gauzak egitea baino».
- «Polarizatutzat edo toxikotzat jo daitezkeen iruzkinak argitaratzen ditut nire gizarte-sareetan».
- «Badaude erasoaren eta indarkeriaren erabilera legitimatzen duten kausak».
- «Garrantzitsuena pertsonarenganako errespetua da. Ez nire ideiek ez nire taldeek ez dute balio giza bizitzak eta duintasunak bezainbeste».
- «Badago desberdintasun guztien ginetik elkartzen gaituen giza esentzia bat».

Emaitzak bistaratzen oso errazak dira, ikasleak bere iritzia islatzeko moduan egongo direlako kokaturik espazioan. Posizionamendu-ariketa bakoitzaren ondoren, elkarrizketa bat abiaraziko da ikusten diren desberdintasunei, sortu diren zalantzei eta izan diren aldaketei buruz, halakorik izanez gero. Ikasleak gelaren bi muturretan taldekatu diren kasuetan (polarizazioan) jarriko da arreta berezia.

Giza eskubideak

Programa honetan landu nahi ditugun balioak, hots, gatazka gizarte-eraldaketako prozesua bihurtzea ahalbidetzen duten balioak dira ezinbestean azaleratzen diren gatazkek indarkeriaren erabilerari eta indarkeriaren gorakadari leku ematea saihesten dutenak.

Bake-kultura bat garatzen duen gizarteak gatazkaren kudeaketa zuzena du ezaugarri. Hori posible izateko, ardatz handietako bat da giza duintasunari balio gorena ematea. Giza eskubideak «gizaki guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela» dioen oinarritik abiatuta [NBE, 1948] garatzen dira eta bake-kulturaren euskarria bihurtu dira.

3. ARIKETA:

Giza eskubideak ezagutzen

Iturria: Baketik

Hezkuntza-asmoa:

- Giza eskubideetarako, haien jatorrirako eta haien xedeetarako hasierako hurbilketa egitea.
- Giza eskubideak praktikan ezagutzea, norbera giza eskubideak bermatzen edo urratzen diren egoerez inguratuta nola egon daitekeen ulertzea.

Zenbatetsitako denbora: ordu 1.

Beharrezko materiala: lineako edukiak proiektatzeko egokia den gela.

Garapena:

Ariketa honetarako, *Zer dira giza eskubideak?* izenburua duen bideo labur bat erreproduzituko da edo, gaztelaniaz nahiago bada, *¿Qué son los Derechos Humanos?* izenburukoa. Bideoa ikusi aurretik, ikasleek galdera hauek erantzungo dituzte, prestaketa moduan:

- Zer dira giza eskubideak?
- Noiz sortu ziren? Zer helbururekin?

Bideoa ikusi ondoren, ikasleek haren edukiari buruzko beste galdera batzuk erantzungo dituzte:

- Zer nabarmenduko zenuke ikusi berri duzun bideotik?
- Zure ustez, zer neurritan errespetatzen dira giza eskubideak zure ingurunean?
- Funtsezko eskubideren bat urratu dioten norbait ezagutzen al duzu?

Ariketa amaitzeko, eskatuko diegu Giza Eskubideen Adierazpenaren 30 artikulua irakurtzeko eta azken bi galderak berriro erantzuteko.

Beste jarraibide batzuk: Ariketa honetan, interesgarria litzateke gaiaz eztabaidatzeko eta hitz egiteko espazio bat sortzea, ikasleek giza eskubideei buruz dituzten zalantzak edo ikuskera partekatu ahal izateko.



2. modulua:



Motibazio politikoko indarkeria

Gida honetan, bai «euskal kasua» deritzona bai Latinoamerikako zenbait herrialdetako (Guatemalako, Kolonbiako eta El Salvadorko) gatazkak aipatzen dira. Testuinguru bakanetan garatu diren kasuak dira eta, beraz, ezin dira parekatu. Hala ere, denek daukate ezaugarri komun bat, alegia, denak direla motibazio politikoko indarkeriaren adibideak.

Zer da motibazio politikoko indarkeria?

Bai nazio-mailan bai nazioartean, «motibazio politikoko» osagarriaren erabilera onartu da ezaugarri zehatz jakin batzuk dauzkaten krimenak eta giza eskubideen urraketak bereizteko. Bereiztasun hauek zehazten dute zein diren motibazio politikoko indarkeriazko ekintzak:

- «Indarkeriazko ekintza gauzatzen duenak (biktimarioa) edo hautatutako biktimak (edo biktima taldea), giza eskubideen urraketa jasango duenak, edo batak zein besteak dute izaera “politiko” hori.
- Gauzatzen diren indarkeriazko ekintzek estatus politikoa zein legeak aldatzeko xedea dute edota hori aldarrikatzen dute. Alderantziz ere izan daiteke: xede horretan ahalegintzen direnak jazarri eta zigortzen dira, terrorismoaren aurka borrokatzeko edo kalte larriagoak saihesteko dela esanda justifikatuz.
- Gizartean edo politikan inpaktua eragin nahi da, edo herritarrek geldiarazteko beldurra sorrarazi nahi da, edo eskarmentu gisa erabiltzen da. Ez da justizia laguntzen, ez da ikertzen, zigorgabetasuna ematen da...» [Argituz, 2021:16].

Giza eskubideetan espezializatutako erakundeek adierazten dute motibazio politikoko indarkeriazko ekintzek nolabaiteko plangintza eta gizarteari edo politikari eragiteko asmoa dituztela bereizgarri, baita ausazkoa ez den portaera-eredu bati jarraitzen diotela ere. Gainera, asmo politikoa biktimaren hautaketan agerraraz daiteke, kontrako taldeak ahultzeko, desantolatzeko edo etsaitzat jotzen diren pertsonak bortizki desagerrarazteko. Kasu batzuetan, biktimak bereizketarik gabe hautatzen dira edo ezaugarri soziologiko jakin batzuk daukate, zeinak berez izaera politiko nabaririk eduki ez arren lagungarriak baitira gizartean izua sortzeko edo biztanleria-sektore zabalei eragiteko⁹.

Indarkeriazko gatazketan, motibazio politikokoetan barne, zenbait giza eskubide urratzen dira. Eskubideok babesteko, giza eskubideen nazioarteko zuzenbidea dago, zeinak NBEko estatu kideak onartzen joan diren tratatu unibertsalak erabiltzen baititu lege-esparru gisa. Lege horiek lotesleak dira, nahitaez bete beharrekoak, eta estatu bakoitzeko zigor-legeria nazionala osatzen dute¹⁰.

Nazioarteko estandar horien arabera, kategoria hauetan sailka daitezke motibazio politikoko gatazken kasuetan izan daitezkeen giza eskubideen urraketak:

a) Bizitzarako eskubidearen urraketa:

Talde edo pertsona batek beste pertsona baten bizitzari eraso egiten dionean.

b) Osotasun fisiko, psikiko, moral eta sexualaren urraketak:

Zauriak, eraso fisikoak, torturak, tratu txarrak, bahiketak...

c) Giza eskubideen beste urraketa batzuk:

i) Pertsonen aurkako mehatxu larriak eta jazarpen-indarkeria.

ii) Adierazpen-askatasunaren eta beste askatasun demokratiko batzuen urraketa.

iii) Ondasun higiezinaren aurkako erasoak.

9 Argituz, giza eskubideen aldeko elkarteak [2021]. *Memoria partekatua baterantz: Legazpi. 1956tik 2021era bitarte gertatutako giza eskubideen urraketari eta indarkeriazko ekintzei buruzko txostena*. Legazpiko Udala.

10 Informazio gehiago: OHCHR [2011]. *Protección Jurídica Internacional de los Derechos Humanos durante los Conflictos Armados*.

Euskadiko gatazka

Euskal testuinguruan, indarkeria larriak eta giza eskubideen urraketa larriak bizi izan dira, oso jatorri desberdinetakoak eta mota askotakoak: hilketak, bahiketak, torturak, atxiloteta arbitrarioak, sabotajeak, estortsio ekonomikoa, jazarpen-indarkeria, ondasun higiezinaren aurkako erasoak eta abar eta abar. Indarkeriok hamarkada asko iraun dute, frankismotik gure garaira arte.

Gerraondoa eta gero eta errepresio frankista bete-betean, ikasle-borrokak eta langile-borroka Francoren erregimenaren aurka egiteko bide kolektiboa bihurtu ziren. Manifestazioz, protestaz eta erreibindikazioz jositako testuinguru horretan, 1959an, ETA (Euskadi ta Askatasuna) jaio zen, erregimenaren aurka borrokatzea xede zuen erakundea. 1968an egin zion eraso ETAk pertsona bati. Txabi Etxebarrietak, ETako 23 urteko kide batek, José Pardines guardia zibila, orobat 23 urtekoa, erail zuen kontrol polizial batean eta egun berean Guardia Zibilak Txabi Etxebarrieta hil zuen. Gertaera horrek motibazio politikoko indarkeriaren bilakaeraren mugarri bat ezarri zuen Euskadin eta Espainiako estatuan. Indarkeria, hain zuzen ere, hurrengo hamarkadetan larriagotu besterik ez zen egin eta kiribil jasangaitza bihurtu zen gizartearentzat oro har eta biktimeentzat zehazki. Jarraian, euskal kasuan pairatutako motibazio politikoko indarkeriari buruz Eusko Jaurlaritzak jasotako datu batzuk emango dira. Garrantzitsua da gogoratzea zenbaki horien atzean badaudela sufritu duten eta gaur egun oraindik ere sufritzen ari diren pertsonak eta familiak.

Urraketa	Biktima kopurua		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira
ETAk erailak	790	55	845
ETAren atentatueta zaurituak	-	-	2632
GAlek, eskuin-muturreko taldeek, talde parapolizialek eta kontrolik gabeek erailak	61	8	69
GAlek, eskuin-muturreko taldeek, talde parapolizialek eta erakunde ezezagunek zaurituak	-	-	1172
Estatuko segurtasun-indarrek erailak	-	-	94
Estatuko segurtasun-indarrek zaurituak	-	-	746
Estatuko segurtasun-indarren torturak pairatu dituztela salatuta duten pertsonak	-	-	4.113

2011n, ETAk bere jarduera armatuaren behin betiko etena iragarri zuen eta, urte bat geroago, Konstituzio Auzitegiak ezker abertzaleko alderdiak legeztatu zituen. 2016an, ETAk armak entregatu zituen, Frantziako estatuan. Testuinguru horri esker, agertoki berri bat sortu zen, zeinean euskal sozietate zibilak eta erakundeek bakerako, adiskidetzarako eta bizikidetzarako bidea hartu baitzuten. Bide horrek oraindik ere badirau gaur egun.

Indarkeria-egoera horren ondorio sozialak, zalantzarik gabe, bizikidetzaren narriatu —edo are hautsi— egin zuen. Oro har, herritarrok, gutako bakoitzak, beste alde batera begiratu genuen eta geure zauriak besteenak ahaztuta errebindikatu genituen, geure eskubideak besteenak ahaztuta erreklamatu genituen. Jarrera horren ondorioz, tentsioak areagotu ziren, besteek bizitako egoeraz axolagabetu ginen —eta batzuetan besteei bizkarra eman genien— eta, hitz batean, gizarte-ehuna, elkarrenganako enpatia, giza duintasuna eta elkartasun soziala hautsi ziren.

Gaur egun, zaurietako askok zabalik —eta batzuetan odoltsu— dirauten arren eta bide luzea egiteke dagoen arren, iraganera beste modu batean, gertatutakoa gainditzeko eta zubiak eraikitzeke modu gisa, begiratzeko akordio sozial bat dago. Bereziki garrantzitsua da belaunaldi gazteek zer gertatu zen jakitea eta horretaz ikasi ahal izatea.

Horretarako, garrantzitsua da ulertzea ez dagoela ikuspegi bakar bat edo egia bakar bat eta memoria beti dela partekatua. Izan ere, memoria kolektiboa memoria kaleidoskopikoa da, ekarpen berri bakoitzarekin birsortzen dena eta protagonisten subjektibotasun guztiez osatuta dagoena. Ez dugu gertatutakoaren historia bat egin nahi, memoria partekatu bat baizik, gizartea egitateen ulermenean batzen duena eta antzina «beste alderdikoak» izan zirenek pentsatu, pairatu eta bizi izan zutena jakiteko —eta agian ulertzeko— bidea ematen duena. Erronka horri heltzeko, ezinbestekoa da oinarritzko esparru bat onartzea: giza eskubideak¹¹.

11 Informazioa hemendik atera da: Argituz, giza eskubideen aldeko elkarteak (2017). *Memoria partekatu baterantz. Lasarte-Orian, 1956tik 2016ra bitarte izan diren giza eskubideen urraketei eta indarkeria-ekintzei buruzko txostena*. Lasarte-Oriako Udala.

1.1. ARIKETA:

Galdetuz ikas dezagun: Euskadiko kasua

Iturria: Baketik

Hezkuntza-asmoa:

- Euskadiko motibazio politikoko indarkeriarekin lotutako oinarrizko ezagutzak barneratzea.
- Oinarrizko kontzeptuak ezagutzea eta giza eskubideen urraketak praktikan identifikatzea.

Zenbatetsitako denbora: 45 minutu.

Beharrezko materiala: Test-plataformarako sarbidea eta galde-sorta atzitzeko gailuak.

Garapena:

Ariketa hau banaka zein talde txikitik (gehienez 4 pertsonako taldetan) egin daiteke. Test-moduko galde-sortak sortzeko plataforma bat (adibidez, Kahoot) erabiliz, ikasleek giza eskubideei buruzko eta «euskal kasuarekin» lotutako ezagutzei buruzko galdera batzuk erantzun dituzte. Iradokitzen ditugunez gain, irakasleak beharrezkoak iruditzen zaizkionak gehitu ditzake edo baten bat kendu dezake. Hona hemen egin daitezkeen 17 galdera:

1. Zer dira giza eskubideak?
 - Pertsona guztiok jaiotzetik dauzkagun eskubideak eta askatasunak.
 - Pertsona guztiok jaiotzetik dauzkagun eskubideak eta betebeharrak. (ZUZENA)
2. Beste pertsonak gu bezalakoak direla eta guk ditugun eskubide berberak dituztela aitortzea eta onartzea...
 - enpatia praktikatzea da.
 - giza duintasuna errespetatzea da. (zuzena)
 - elkartasuna da.
3. Gobernuek eta estatuak...
 - ez dute beren legetan, politikan eta praktikan diskriminaziorik egin behar. (ZUZENA)
 - saihetsezina dute diskriminatzea.
 - haien mugetan egoera irregularrean dauden pertsonak diskrimina ditzakete.
 - baliabideak esleitzerakoan pertsona kalteberenei eman behar diete lehentasuna. (ZUZENA)
4. Gizakia mugatua da.
 - Ez dakigu dena, ez daukagu arrazoirik denari buruz. (ZUZENA)
 - Sufrimendua eta mina sortzen ditugu, gatazka geure zati da.(ZUZENA)

- Pertsona guztiek elkarrekin duten ezaugarri bat da. (ZUZENA)
 - Betiko zoriontsu izateko gai da.
5. Elkarrizketari esker...
- nire adimen-gaitasuna eta gogo-malgutasuna garatzen ditut. (ZUZENA)
 - besteak konbentzitzeko gaitasuna garatzen dut.
 - besteek pentsatzen eta sentitzen dutena hobeto ulertzen dut. (ZUZENA)
 - eztabaidatzen ikasten dut.
6. Pertsona bat hiltzea...
- erailketa bat da. (ZUZENA)
 - giza eskubideen urraketa bat da. (ZUZENA)
 - bidegabeko heriotza bat da.
7. Talde armatuak eta estatuak indarkeria erabiltzen dutenean, honela esaten diogu:
- Estatu-terrorismoa.
 - Motibazio politikoko indarkeria. (ZUZENA)
 - Errepresioa.
 - Indarkeriazko egintza.
8. ETA honako hau zen:
- Euskal Herriaren independentzia xede zuen talde klandestino bat.
 - Euskal Herriaren independentzia xede zuen talde armatu bat. (ZUZENA)
 - Euskadiren independentzia xede zuen talde armatu bat.
9. GAL honako hau zen:
- Estatuako aparatuetatik sortutako talde armatu bat. (ZUZENA)
 - Estatuak ETaren aurka borrokatzeko sortutako ministerio bat.
 - Eskuin-muturreko talde armatu bat.
10. Nork erabiltzen zituen «BVE» eta «Triple A» siglak 1975-1982 urteetan?
- ETA militarrek.
 - Komando Autonomo Antikapitalistek.
 - ETA politiko-militarrak.
 - Eskuin-muturreko taldeek eta talde parapolizialek. (ZUZENA)
11. Zer da adierazpen-askatasuna?
- Gure ideia politikoak askatasunez adierazteko eskubidea. (ZUZENA)



- Nahi duguna askatasunez esateko eta egiteko eskubidea.
 - Askatasunez biltzeko eta askatasunez manifestatzeko eskubidea. (ZUZENA)
12. ETAk, bere jarduera finantzatzeko, «zerga-iraultza» delakoa eskatzen zien euskal enpresei. Horri esaten zaio...
- Jazarpen-indarkeria.
 - Estortzio ekonomikoa. (ZUZENA)
 - Tortura psikologikoa.
13. Segurtasun-indarrek atxilotetaldian erabiltzen duten indarkeria sistematikoari...
- tratu txar deritzo.
 - tortura deritzo. (ZUZENA)
 - polizia-indarkeria deritzo.
14. Mehatxatu dituzten eta eskolta eraman duten pertsonak...
- bidegabeko sufrimendua pairatu dute.
 - jazarpen-indarkeria pairatu dute. (ZUZENA)
 - giza eskubideen urraketa bat pairatu dute. (ZUZENA)
15. Euskal kasuan, edozein motatako sufrimendua pairatu duen edozein pertsonari giza eskubideren bat urratu diote.
- Egia.
 - Gezurra. (ZUZENA)
16. Atentatu batean zure autoa erraustuta geratu bada, giza eskubideen urraketa bat pairatu duzu.
- Bai. (ZUZENA)
 - Ez.
 - Kasuaren arabera.

Beste jarraibide batzuk:

Honelako tresnek partaidetzazko giroa sortzen dute eta giro horretan komenigarria litzateke zalantzak argitzea eta erantzunak bildu ondoren galdera bakoitzari banan-banan heltzea. Horretarako, irakasleak hizpide den gaiari buruzko gutxieneko ezagutzak eduki behar ditu.

Ariketa hau Euskadiko kasuan ardaztuta egin daiteke edo El Salvador, Guatemalako eta Kolonbiako gatazka armatuen kasuei buruzko galderak gehitu daitezke. Informazio gehiago modulu honetako 1.2 ariketan.

Kolonbiako gatazka:

Kolonbiako eskubide-urraketa	Biktima kopurua		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Erailak	91%	9%	450.664
Horietatik, zibilak			360.531
Horietatik, borrokalariak			90.132
Paramilitarrei egotzitako %			45%
Talde gerrillariei egotzitako %			25%
Estatuko agenteei egotzitako %			12%
Askotarikoei egotzitako %			6%
Beste batzuk			2%
Desagertuak	83%	17%	121.000
Bahituak			80.000
Matxino-taldeek			59%
Paramilitarrek	22%	78%	24%
Beste batzuek/Zehaztu gabe			8%
Lekualdatuak	48%	52%	7.753.000 (de una población total de 70M)

Iturria: <https://www.bbc.com/mundo/noticias-america-latina-61997812>
[Comisión de la Verdad - Informe final, 2022]

Kolonbiako barne-gatazka armatua intentsitate baxuko gerra bat da, Kolonbiako estatuaren, ezker-muturreko gerrillen eta eskuin-muturreko paramilitarren artekoa. 1960an hasi zen, Kolonbian, eta gaur egunera arte dirau. Honako hauek aitortzen dira gatazkaren arrazoi gisa: estatuaren ahultasuna eta estatuaren absentsia lurraldeko eskualde zabaletan, lurraren jabetzarekin lotutako desperekotasuna, desperekotasun ekonomiko handiak, biztanleria zibilaren polarizazioa eta jazarpena, espazio demokratikorik eta partaidetzarako espaziorik eza, gizarte-bazterketa eta oinarrizko zerbitzuetarako sarbiderik eza, gizartearen eta estatuaren sektore guztietan sartutako narkotrafikoa eta Ameriketako Estatu Batuen esku-sartzea.

Gatazkak larriagotze-garaiak izan ditu. Larriena 1988tik 2002ra bitartean izan zen, alderdi armatuak narkotrafikoarekin, legez kanpoko meatzaritzarekin, bahiketekin eta beste delitu-jarduera batzuekin finantzatzen hasi zirenean.

Memoria Historikoko Zentro Nazionalaren «¡Basta ya!: Colombia: memorias de guerra y dignidad» txostenaren arabera, 1958tik 2012ra bitartean, sarraldi armatuek, sarraskiek, nahitaezko lekualdaketa masiboek, terrorismoak, zibilen, militarren eta politikarien bahiketek, «positibo faltsu» deritzen judizioz kanpoko exekuzioek, pertsonen kontrako minek eta giza eskubideen beste urraketa batzuek 40.787 borrokalariaren eta 177.307 zibilen heriotza

ekarri dute.

Kolonbia munduko herrialde bortitzenetakotzat sailkatuta dago.

Memoria Historikoko Zentro Nazionalaren arabera, nahitaezko desagertuen 83.000 mila biktima daude erregistratu, baina erakunde sozialek eta giza eskubideen erakundeek ohartarazten dute erregistratu gabeko kasuak zenbatuta 90.000 eta 120.000 bitartean izan litezkeela.

1985etik 2012ra bitartean, 1982 sarraski-kasu erregistratu ziren, zeinek 11.751 biktima utzi baitzituzten. Sarraskien % 58,8 paramilitarrek egin zituzten, % 17,3 gerrillek, % 8 estatuko indarrek eta % 14 identifikatu gabeko agenteek. 2019ra arte, 7.816.500 pertsonak egin behar izan diote ihes indarkeriari, Barne Lekualdaketa Monitorizatzeko Zentroaren arabera.

1970etik 2010ra bitartean, 27.023 bahiketa erregistratu ziren; horietatik % 90,6 gerrillek egin zituzten eta gainerako % 9,4, ordea, paramilitarrek.

2021eko otsailean, Bakearen Jurisdikzio Bereziak aitortu zuen Uriberen presidentaldian, 2002tik 2008ra bitartean, positibo faltsuen (eraildako eta borrokan hil diren gerrillari gisa aurkeztutako zibilen) 6.402 kasu izan zirela.

Kalkulatu da Kolonbian pertsonen kontrako 100.000 mina inguru daudela.

Memoria Historikoko Zentro Nazionalaren arabera, 1960tik 2016ra bitartean 16.879 haur errekrutatu zituzten nahitaez.

1988tik 2012ra arte, gatazkaren egileek eragindako sexu-indarkeriaren 1754 biktima erregistratu ziren.

Hauek dira Kolonbiako barne-gatazka armatuan biktima gehien izan dituzten gizarte-taldeak: nekazariak, indigenak, afroondorengoak, talde politikoak, sindikalistak, gizarte-liderrak, borrokalaria ohiak, kazetariak, giza eskubideen defendatzaileak, irakasleak, ikasleak eta LGBT biztanleak.

2011n, Biktimei eta Lurren Itzultetari buruzko Legea onartu zen, zeinak lekualdatutakoei milioika akre itzultzea eta giza eskubideen urraketen biktimei ordain finantzarioa ematea hartzen baitzuen barne. Human Rights Watch erakundearen arabera, paramilitarren ondorengoak diren taldeak prozesua moteltzen ari dira; izan ere, talde horiek oraindik hazten ari dira, ankerkeria orokortuak egiten dituzte eta lotura estuak dituzte segurtasun publikoko indarretako kideekin eta tokiko talde politiketako kideekin.

2022an, Gustavo Petro politikaria eta gerrillari ohia izendatu zuten presidente, zentro-ekzkerreko Hitzarmen Historikoko koalizioaren babesarekin. Erabateko Bakearen proposamena aurkeztu zien armak hartuak zituzten talde guztiei, Indar Publikorako erreformak proposatu zituen eta aurreko presidentek geldiarazitako elkarrizketak berrabiarazi zituen. Gatazkak eta sarraskiek beren horretan iraun zuten Kolonbiako eskualde askotan.

El Salvadorko gatazka

El Salvadorko eskubide-urraketa	Biktima kopurua		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Erailek	¿?	¿?	75.000
Horietatik, zibilak			75.000
Horietatik, borrokalaria			¿?
Paramilitarrei egotzitako %			60
Talde gerrillariei egotzitako %			5
Estatuko agenteei egotzitako %			25
Askotarikoei egotzitako %			
Beste batzuk			10

Desagertuak	¿?	¿?	15.000
Lekualdatuak	¿?	¿?	25% de la población total
Erbesteratuak	¿?	¿?	500.000

Iturria: «Guerrilla Civil de El Salvador» [Wikipedia]: https://es.wikipedia.org/wiki/Guerra_civil_de_El_Salvador#Consecuencias

El Salvadorko gerra zibilak hamabi urte iraun zuen (1979-1991) eta, bertan, 75.000 heriotza inguru, 9.000 desagertu eta 12.000 preso politiko izan ziren. Alde batetik, Nazio Askapenerako Farabundo Martí Frontea (Frente Farabundo Martí de Liberación Nacional edo FMLN) zegoen; bestetik, Aliantza Errepublikano Nazionalista (Alianza Republicana Nacionalista edo ARENA); eta kanpoko eragile bat, Ameriketako Estatu Batuak, El Salvador herrialdeko bizitza politiko, ekonomiko eta sozialari eragin zioten erabakiak hartzerantz sartu zen.

Egiturazko bidegabekeria eta zapalkuntza izan ziren El Salvadorko gatazka zibilaren jatorria. Hala ere, garrantzitsua da gatazka horren lehertze formala lasterragotu zuten aurrekarietako batzuk ulertzea. Azalpen-oinarri sendo batetik, funtsezko hiru aldagai deskriba daitezke El Salvador herrialdea leherrarazi zuten arrazoiak ulertzeko. Lehenik, hauteskunde-prozesu garbirik ezarri ezinenez eta kritikarako eta borroka politikorako legezko espazio guztiak itxi zituztenez, gizarte-sektoreen eskariak eta borroka-metodoak erradikalizatu egin ziren. Borroka politikoa, militarra eta gizarte-mugimenduarena konbinatzen zituen alderdi politiko bat eraikitzeko asmoa zuten egitura armatuak sortu ziren. Gizarte-mugimenduan, hain zuzen ere, zenbait emakume-erakunde zeuden. Izan ere, emakumeek, ama pobreak ziren aldetik, gatazka armatuaren esparruan berriazko borroka errebindikatzen zituzten, bide politikora ahalik eta epe laburrean heltzeko, herrialdearen demokratizazioa bultzatzeko, giza eskubideen mugarik gabeko errespetua bermatzeko eta El Salvadorko gizartearen birbateratzeko.

Alderdiak su-eten bat ezarri zuten 1992ko otsailaren 1az geroztik eta indarrak banatzea adostu zuten. Hala, Indar Armatuak pixkanaka atzera egin zuten, bake-garaia zegoen hedapen bat izan arte. FMLN, aldiz, zona geografiko jakin batzuetan bildu zen armak entregatu eta suntsitu aurretik eta desmobilizatu aurretik, alderdi politiko giza legeztatzen eta hauteskunde-prozesuetan parte hartzen hasi zen. 1994tik aurrera, Indar Armatuaren erreforma eta segurtasun publikoaren desmilitarizazioan jarri zen arreta berezia. Akordioen ondorioz, antzinako segurtasun-kidego militarrek (Ogasun Polizia, Polizia Nazionala eta Guardia Nazionala) desagertu ziren eta segurtasun-indar demokratiko berri bat —Polizia Nazional Zibila (PNC)—, agintaritzaz zibilen mendekoa, sortu zen. Gainera, Hauteskunde Auzitegi Gorena berri bat sortzea xedatu zen, Hauteskunde Kontseilu Zentralea ordezkatzeko. Akordioek Justizia Auzitegi Gorena hautatzeko sistema erreformatzea ekarri zuten, hiru urtean behin herenka berritzeko eta Batzar Legegilearen gehiengo kualifikatuarekin hautatua izateko. Horrez gain, Bake Akordioek azpimarratu zuten giza eskubideen errespetuak eta sustapenak izan behar zutela estatuaren jardueraren ardatz nagusia. Horretarako, Giza Eskubideen Defentsarako Prokuradoretza sortu zuten eta Indar Armatuarentzako, estatuko inteligentzia-erakunde berriarentzako eta, oso bereziki, Polizia Nazional Zibil berriarentzako doktrina demokratiko eta zibila ezarri zuten. Akordioek Egiaren Batzordearen sorrera xedatu zuten, 1980az geroztik gertatutako indarkeria-egitate larriak ikertzeko eta haiei buruzko txosten publiko bat prestatzeko. Bertan, legeen, politikaren eta administrazioaren arloko gomendioak eman ziren eta egitateak ez errepikatzen eta adiskidetzeko sustatzeko neurriak proposatu ziren. Berandu eta oso zeharka heldu zioten El Salvadorko garapen ekonomiko eta sozialarekin lotutako gaiei. Gogoan hartu zen egiturazko doikuntzaren kostu soziala arintzeko neurri batzuk ezartzea, hala nola nazioarteko komunitateak finantzatzeko garapen-programak sustatzea, Berreraikuntza Nazionalerako Plan bat egitea, Hitzartze Ekonomiko eta Sozialerako Foro bat sortzea eta borrokalari ohiak gizarteratzeko programak abian jartzea. Botere betearazleak garatu

beharreko neurrien zirriborroa besterik ez ziren izan.

El Salvadoroko gerraondoko prozesua hiru trantsiziotan oinarrituta azter daiteke, alegia: [1] gerratik bakerako trantsizioa, [2] El Salvadoroko gizartearen demokratizazioa eta [3] El Salvadoroko gizartearen liberalizazioa. Indarkeria militarra eta paramilitarra bukatua zen eta herrialdea prest zegoen Bake Akordioetan aurkeztutako instituzionalizazio demokratikoko prozesuan aurrera egiteko. Agertoki horretan, Nazio Askapenerako Farabundo Martí Fronteak (FMLN) eta Aliantza Errepublikano Nazionalistak (ARENA) higidura politiko sakona pairatua dute, beren funtzio publikoko ekintzek larriagotuta, zeinen ondorioz zenbait ahotsek bilakaera autoritario deritzoten horretan baitago gaur-gaurkoz El Salvador.

El Salvadorrek bira erradikala eman zion bere mapa politikoari 2019an, Nayib Bukele presidente hautatu zuenean. Hain zuzen ere, presidente berriak lekua kendu zien Bakea sinatu ondoren Ertamerikako herrialdea gobernatu zuten bi indar politiko handiei eta saiatu zen salvadortarrei proposamen politiko berri bat ematen.

Gaur egun, herrialdearen egonkortasuna arriskuan jarri da. Izan ere, zuzenbide-estatu ahultzen duten neurriak hartzen joan dira etengabe. Horren adibide grafikoa da 2020an estatu-kolpe saio bat izan zela eta duela gutxi, 2023ko uztailan, bere alderdiak, Nuevas Ideas izenekoak, datorren urteko lehendakaritza-hauteskundeetarako hautagaia izendatu duela, alde batera utzita Konstituzioak ez duela baimentzen inor bi aldiz segidan hautatzerik. 2022an, salbuespen-erregimena onartu zen. 30 egun iraun behar zuen, konstituzio-bermeak (biltzeko eta elkartzeko askatasuna, defentsarako askatasuna, administrazio-atxiloketarako 72 orduko epea eta korrespondentziaren eta telekomunikazioen bortxaezintasuna) ezabatzea dakar eta. Gaur egunera arte, 12 aldiz luzatu da, gobernuko alderdiak Batzar Legegilean daukan gehiengo osoaren bidez onetsita. Horrek esan nahi du El Salvadorrek urtebetez eduki dituela etenda konstituzio-bermeak. Salbuespen-erregimen hori El Salvador gobernu-sistema neofaxista bihurtzeko tresnarik erabilgarriena suertatu da eta ondorio izugarriak izan ditu, adibidez:

El Salvadoroko gizartearen militarizazioa, soldaduen kopurua bikoiztuz. Itxitura militar jarraituak eta etengabeak komunitate eta kolonia herrikoienetan, non funtsezko eskubideen urraketa lazarriak erregistratu diren. 67.000 atxilotu, asko «mara» direlakoei lotuta, baina beste asko ez. 8.000 emakume arbitrarioki harrapatuta, seme-alabak umezurtz utziz eta horrela kalteberatasun-mailak areagotuz eta zaintzen krisia eta pobrezia larriagotuz.

Guatemalako gatazka

Conculcación de derechos en Guatemala	Número de víctimas		
	Hombres	Mujeres	Total
Erailak	¿?	¿?	200.000
Desagertuak	¿?	¿?	45.000
Lekualdatuak	464.000	536.000	1.000.000
Gobernuko indarrek indarkeria-kasuetan duten erantzukizunaren %	¿?	¿?	93%
Gerrilla-taldeek indarkeria-kasuetan duten erantzukizunaren %			4%
Identifikatu gabe			3%
Indigena gisa identifikatutako biktimen %	94.000	72.000	83% 166.000

Ladino gisa identifikatutako biktimen %			13%
Identifikatu gabe	18.000	16.000	34.000
			4%

Guatemalako gerra zibila Latinoamerikako Gerra Hotzeko gatazka odoltsuena izan zen. Gerrak 1960tik 1996ra iraun zuen eta, bertan, 200.000 pertsona baino gehiago erail eta desagerrarazi zituzten eta milioi bat pertsona baino gehiago lekualdatu zituzten, 8 milioi biztanleko herrialde batean.

1944an, Guatemalako historiako lehen hauteskunde demokratikoetan, aurreko diktadorea kargutik kendu ondoren, guatemalarrak Juan José Arévalo Bermejo doktorea hautatu zuten, 6.000 eskola inguru eraiki zituen eta hezkuntzan eta osasun publikoan aurrerapen handiak egin zituen sozialista eta hezitzailea. Juan José Arévaloren atzetik Jacobo Árbenz etorri zen, Guatemalako azken legegintzaldi demokratikotzat jotzen denarekin. Beste estatu-kolpe batek eten zuen eta, horren bidez, militarrek hamarkadetarako berenganatu zuten boterea.

Bi presidente demokratok boterera heldu zirenean, biztanleen % 2,2 lurraren % 70ren jabe ziren, jabetza-tituluen bidez jatorrizko biztanle indigenei kendu zizkietelako lurrak, eta lurraren % 10 biztanleen % 90ren artean banatuta zegoen, batez ere indigenen artean, zeinek ez baitzeukaten lurrerako eskubiderik. Arévalok eta Árbenzek, muturreko pobrezia aurka egiteko eta gizarte bidezkoago bat eraikitzeko, proposatu zuten nekazaritza-erreforma bat egitea eta lurrak indigenen eta nekazarien artean birbanatzea, haiek landu zituzten.

Hori ikusita, *United Fruit Company* konpainiak, enpresa nazionalen eta estatubatuarren monopolio eta oligopolioen ordezkariak, AEBko orduko gobernua esku hartzeko presionatu zuen eta, hala, 1954an CIAk estatu-kolpe bat antolatu zuen eta AEBk Guatemalako gobernua eskuineko eta militarren diktadura batekin ordezkatzeko sustatu zuten, Carlos Castillo Armas koronela buru zela.

Castillo Armasek nekazaritza-erreformak lehengoratu zituen eta gobernua eta armadak nekazariak, lider indigenak, lan-arloko aktibistak eta aktibista intelektualak atxilotzeari eta torturatzeari ekin zioten. 1957an erail zuten, baina Guatemalako armadak herrialdea gobernatzen jarraitu zuen, egoera larriagotu zuten ondoko ondoko estatu-kolpeekin. Ondorioz, 1960an gerrillako erresistentzia-mugimenduak sortu ziren eta, azkenean, gerra zibila piztu zen, zeina 1960ko azaroaren 13an hasi baitzen ofizialki.

Gobernua zaintza-sare bat ezarri zuen, estatuko inteligentzia-zerbitzuak erabiliz hurrengo 30 urteetan biztanleria zibila kontrolatzeko, eta heriotzaren eskudroi paramilitarrak sortu ziren; zibilez jantzitako segurtasun-indarrak ziren gehienak. Eskudroiek biztanleria zibila ikaratu zuten eta judizioz kanpoko exekuzioetan beren erantzukizuna ukatzen lagundu zieten militarrei.

1980ko hamarkadan estatu-indarkeria basatia izan zen, ehunka komunitate indigena eta nekazari sarraskitu baitzituzten. NBEko Argitze Historikorako Batzordeak (CEH), 1999an, genozidio-egintza gisa sailkatu zituen aldi horretako ekintza militarrek.

1982ko martxoan, Efraín Ríos Montt jeneralak estatu-kolpe bat eman zuen, konstituzioa deuseztatu zuen, kongresua desegin zuen eta foru bereziko auzitegiak ezarri zituen, ustezko subertsiboak epaitzeko aurpegi gabeko epaileekin, eta biztanleria kontrolatzeko moduak ezarri zituen, elkar salatzen behartuz. Bitartean, gerrilla-mugimenduak Guatemalako Batasun Iraultzaile Nazionalen bildu ziren.

1986 aldera, judiziozko kanpoko exekuzioak eta desagerpenak gelditu ez ziren arren, bizirik atera ziren pertsonen taldeak sortzen hasi ziren eta atxilotutako pertsona desagertuz galdetzeari ekin zioten.

1994an, gobernua eta gerrillak Nazio Batuen misio bat adostu zuten, giza eskubideen betetzea bermatzeko, eta abusu militarrek ikertzen eta salaketei jarraipena egiten hasi ziren. 1995ean, komunitate indigena baten azken sarraskia izan zen, Xamánego sarraskia.

Gerra zibila 1996ko abenduaren 29an amaitu zen, Guatemalako Gobernua eta Guatemalako Batasun Iraultzaile Nazionalak Bake Sendoa eta Iraunkorrerako Akordioak sinatu zituztenean. Baina Bake Akordioak sinatu ondoren ere errepresalia bortitzak izan dira militarren krimenen irismena agerian jartzen saiatu diren guatemalarren aurka.

CEHk zenbatetsi zuen gerraren azken saldoa honako hau izan zela: 200.000 hildako, 45.000 desagertu eta 100.000 lekualdatu inguru. Urte ilun horietan, Guatemala hilerri klandestinoz bete zen. Argitze Historikorako Batzordearen arabera, gobernuko indarrak gatazkaren indarkeriaren % 93ren erantzuleak dira, eta gerrilla-taldeak, aldiz, % 3ren erantzuleak (% 4 ez daude identifikatuta). Identifikatutako biktimen % 83 indigenak (maiak) ziren eta % 13, berriz, ladinoak.

Justiziaren eta giza eskubideen arloan aurrerapenak egin dira bakea sinatu ondoren: adibidez, 2013ko maiatzaren 10ean, Arrisku Handieneko Lehen Auzitegiak epai historiko bat eman zuen, José Efraín Ríos Montt presidente ohi eta jeneral erretiratuari 50 urteko espetxe-kondena jarri ziona genozidio-delituagatik eta 30 urtekoa gizateriaren aurkako krimenengatik. Epaiak poz handia ekarri zion gizarte guatemalarraren zati handi bati eta frogatu zuen epailetzan badaudela justizia egitearen alde eta genozidio maiaren erantzuleak inputatzearen alde egiten duten pertsonak, baina zigorgabetasuna oso presente dago oraindik ere herrialdean, eta, hamar egun geroago, Konstituzionaltasun Auzitegiak epaia deuseztatu zuen eta eztabaida behin-behinean eteteko agindu zuen. Herri indigenek Bake Akordioetan jarritako itxaropenak desagertu egin ziren estatuaren konpromiso-falta ikustean.

Gainera, 2012. urtean, lehenengo aldiz entzunaldiak egin ziren gatazka armatuaren testuinguruan egindako sexu-indarkeriako delituagatik. Gobernuak, armadak eta haren talde paramilitarrek diseinatu eta erabili zuten estrategia hori eta emakume indigenen aurkako zuzeneko erasoan ardaztu ziren, beren familien eta beren komunitateen euskarria baitziren. Epaiaketa hori ere historikoa izan zen; izan ere, lehenengo aldiz jarri zuen arreta emakumeek berriaz pairatutako indarkerietan: 15 emakume kektxik Sepur Zarcoko destakamentu militar batean behin eta berriro pairatu zituzten sexu-indarkerietan ardaztu zen eta, hain zuzen ere, kasu paradigmatico hori herrialdeko zenbait departamentutako destakamentu askotan errepikatu zen.

Bake Akordioak sinatu eta 25 urte baino gehiago igarotakoan, preso politiko ugari daude, baita eraildako edo desagerrarazitako lider komunitario asko ere, pobrezia eta muturreko pobrezia gora egin dute, hezkuntza-maila eta osasun-maila baxuak dira eta jendea lurrez eta lursailaz gabetzen jarraitzen dute. Herriek erresistentzian diraute: ixilek, kitxeek, kaktxikelek, kektxiek, tzutuhilek, txortiek, xinkek, pokomamek, pokomtxiek eta beste guztiek beren lurraldeak mantentzeko borrokan jarraitzen dute, enpresa multinazionalak haien baliabideak ustiatzeko egin nahi dituzten lurgabetzeen mehatxupean. Eta, azken urteetan, estatu plurinazional bat eraikitzeko ideia garatzen ari dira.

2020. urtean, bakea bultzatzeko sorturiko erakundeetako asko ezabatu zituen gobernuak: besteak beste, Bakearen Idazkaritza, Nekazaritza Gaietarako Idazkaritza eta Ordaina Emateko Programa Nazionala. Halaber, CICIG (Guatemalako Zigorgabetasunaren aurkako Nazioarteko Batzordea), alegia, segurtasunezko kidego eta aparatu klandestinoek egindako delituak ikertze aldera Nazio Batuek sortutako batzordea, kanporatu zuen. Aldi berean, lurralde indigenetan erauzketa-industriak babesteari ekin zion berriz.

Gainera, ageriko sekretua da narkotrafikoak Guatemalako hauteskunde-kanpainetan esku hartzen duela, ia demokrazia berriro ireki zenetik, hots, 1996tik.

2022an, aliantza kriminalak estatuko instituzio eta erakunde guztiak erabat kontrolatzea lortu zuen. Botereen independentzia, zeina funtsezkoa baita demokraziaren funtzionamendurako, desagertu egin zen, eta bai botere betearazlearen, legegilearen eta judizialaren titularrek bai Ministerio Publikoaren eta Konstituzionaltasun Auzitegiaren titularrek adostutako eran jarduten dute, proiektu autoritarioa ezartzeko helburuarekin.

Hala ere, eta 2023ko legegintza-hauteskundearen lehen txandan (zeinetan presidentea eta presidenteordea hautatu behar baitziren) justiziak legearen aurka debekatu zuen arren garaipena lortzeko aukera gehien zituen hautagai-zerrenda herrikoiak parte hartzea, beste alternatiba herrikoia, Movimiento Semilla, garaile atera zen bigarren txandan. Beraz, Bernardo Arévalo presidente-karguaz jabetu zen eta Karen Herrera, berriz, presidenteorde-karguaz eta, hala, herrialdean beste egoera bat sortu zen..

Urte horietan herrialdeko erakundeak harrapatuta egon zirenez eta zigorgabetasuna areagotu zenez, giza eskubideen defendatzaileen aurkako eta, batez ere, justizia-operadoreen aurkako erasoek gora egin dute. Hori dela eta, gaur egun 40 pertsona baino gehiago daude erbestean eta CICIGeko langile, Zigorgabetasunaren aurkako Fiskaltza Bereziko langile eta epaile independente eta abokatu batzuk prebentziozko espetxealdian daude.



1.2. ARIKETA:

Galdetuz ikas dezagun: Erdiko Amerikako kasuak

Iturria: Mugen Gaietik.

Hezkuntza-asmoa:


- Euskadiko, El Salvadorko, Guatemalako eta Kolonbiako motibazio politikoko indarkeriarekin lotutako oinarritzko ezagutzak barneratzea.
- Oinarritzko kontzeptuak ezagutzea eta giza eskubideen urraketak praktikan identifikatzea.

Zenbatetsitako denbora: ordu 1.

Garapena: Zeregin hau 1.1 ariketa zabaltzeko proposamena da. El Salvadorko, Guatemalako eta Kolonbiako kasuak gehitzeko, galde-sortan galdera hauek gaineratzea proposatzen da:

Kolonbiari buruzko galderak:

1. Zer hamarkadatan hasi zen Kolonbiako gatazka armatua?
 - 60ko hamarkadan. (ZUZENA).
 - 70eko hamarkadan.
 - 80ko hamarkadan.
 - 90eko hamarkadan.
2. 2024. urtean, esan dezakegu Kolonbiako gatazka armatua amaitu dela?
 - Bai, gerrilla-talde guztiek bake-akordioak sinatu dituzte eta gatazka ebazteko bide politikoan sartu dira.
 - Ez, talde paramilitarrek badiraute.
 - Ez, talde paramilitarrek eta gerrilla-talde batzuek badiraute.
 - Bai, Bake Akordioak sinatu ondoren gatazka konpondu egin zen.
3. Zer esan nahi dute FARC gerrilla-taldearen siglek?
 - Fuerzas Armadas Rebeldes de Colombia (Kolonbiako Indar Armatu Matxinoak).
 - Fuerzas Anarquistas Revolucionarias de Colombia (Kolonbiako Indar Anarkista Iraultzaileak).
 - Fuerzas Armadas Revolucionarias de Colombia (Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileak). (ZUZENA)
 - Fuerzas Anarquistas Rebeldes de Colombia (Kolonbiako Indar Anarkista Matxinoak).

- 
4. Zer dira Kolonbiako gatazkako «positibo faltsuak»?
 - Soldaduei egiten dizkieten droga-kontrolak.
 - Gerrillaritzat aurkezten dituzten nekazari erailak. (ZUZENA)
 - Gerrillaririk harrapatzen ez den kontrol-militarrak.
 - Izen ona galarazteko metodo gisa filtratutako albiste faltsuak.

Guatemalari buruzko galderak:

5. Guatemalako gatazka armatuan, indarkeria kasuen ze ehuneko egozten zaie gobernuko indarrei?
 - %10
 - %34
 - %67
 - %93
6. Nor kondenatu zuten Guatemalan 2013an 50 urteko espetxe-zigorra genozidio-delituagatik eta beste 30 urteko espetxe-zigorra Guatemalako gizateriaren aurkako delituak egotzita?
 - Rigoberta Menchú
 - José Efraín Ríos Montt presidente ohia
 - Guatemalako Armada
 - Guatemalako Unitate Iraultzaile Nazionala
7. Zein da indigenen biktima guztien ehunekoa Guatemalako biktima guztiekiko?
 - %8
 - %45
 - %83
 - %99
8. Zein konpainia estatubatuarrek parte hartu zuen Guatemalako gatazka armatuaren jatorrian?
 - United Fruit Company
 - Oracle
 - Coca Cola
 - Texaco

El Salvadorri buruzko galderak:

9. Zein urtetan izan zen El Salvadorreko gerra?
- 1980 - 1999
 - 1979 - 1991
 - 1972 - 1987
 - 1940 - 1990
10. Zein zen El Salvadorreko gerrako gerrilla talde nagusiaren izena?
- Simon Bolivar Herri Frontea
 - Nazio Askapenerako Armada
 - Nekazaritza Fronte Libertarioa
 - Nazio Askapenerako Farabundo Martí Frontea
11. Nor da gaur egun El Salvadorreko presidentea?
- Nayib Bukele
 - Francia Márquez
 - Mauricio Funes Cartagena
 - Rafael Vicente Correa Delgado

Irakasleak gainerako herrialdeei buruzko bere galderak sor ditzake, gatazka armatuari buruz emandako informazioan oinarrituta.

Beste jarraibide batzuk: Honelako tresnek partaidetzazko giroa sortzen dute eta giro horretan komenigarria litzateke zalantzak argitzea eta erantzunak bildu ondoren galdera bakoitzari banan-banan heltzea. Horretarako, irakasleak hizpide den gaiari buruzko gutxieneko ezagutzak eduki behar ditu.



2. ARIKETA:

Urraketak identifikatzeko ariketa

Iturria: Baketik

Hezkuntza-asmoa:

- Kasu praktikoen bidez giza eskubideen urraketak identifikatzea.
- Bai Euskal Herrian bai Latinoamerikako herrialdeetan izan diren urraketek eta kasu bakoitzean izan duten neurria ezagutzea.

Zenbatetsitako denbora: ordu 1.

Beharrezko materiala: informazioa bilatzeko ordenagailuak.

Garapena: Ikasleak 4-5 pertsonako talde txikitan banatuko dira. Talde bakoitzari urraketa-mota bat esleitu zaio (modulu honetan zerrendatutakoetatik). Hala, lehenik, urraketa hori zertan datzan ulertu beharko dute eta, gero, Interneteko bilatzaile baten bidez, kategoria horretan sartzen diren benetako kasuak aurkitu beharko dituzte. Talde bakoitzak, gutxienez, leku bakoitzeko (Euskadiko, Kolonbiako, Guatemalako eta El Salvadorko) motibazio politikoko gatazkarekin lotutako kasu bat aurkitu beharko du. Ikasleek 25 minutu edukiko dituzte bilaketa egiteko. Ariketa amaitzeko, taldeek bildu dituzten kasuen berri emango diote elkarri..

3. modulua:



Emakumeak motibazio politikoko indarkeriako agertokietan

1. ARIKETA: Rol-aldaketa



Iturria: Argentinako Errepublikako Ministerio Publiko Fiskaleko Genero Politiketako Zuzendaritza Nagusia.

Hezkuntza-asmoa:

- Eguneroko bizitzan agertzen diren genero-rolak eta genero-estereotipoak identifikatzea.
- Emakumeek gizarte matxista eta patriarkal batean aurre egiten dioten indarkeria ezagutzea.

Zenbatetsitako denbora: 40 minutu.

Beharrezko materiala: Film laburra erreproduzitzeko euskarri teknikoa.

Garapena: Jarduera honetan, emakume batek bere eguneroko bizitzan aurre egin behar dien egoerak ezagutaraziko dituen film labur bat ikusiko dute ikasleek eta horri buruz gogoeta egingo dute. Ikasleek deigarriak suertatzen zaizkien jardueri edo egoeri buruzko oharrak har ditzakete 10 minutu dirauen film laburra, Mayoría oprimida, ikustean. Bideoa amaitutakoan, atentzioa eman dienari buruzko elkarrizketa edo eztabaida bat hastera animatuko da taldea. Gainera, «zer erakutsi nahi digu film labur honek?» galdera lagungarria izan daiteke gelan elkarrizketa hori abiarazteko.

Beste jarraibide batzuk: Film laburraren helburua da kontrako generoko protagonistei gertatuz gero agian oharkabean gertatuko liratekeen egoeretan jartzea arreta. Generoa alderantzizatzeko jolas horren bidez, errazagoa da gelan eztabaida bati bide eman diezaioketen egoerak identifikatzea eta, horrela, modulu honek jorratzen duen gaia, hots, motibazio politikoko indarkeriako gertakarietan emakumeek betetzen duten rola arakatzea.

Modulu honen oinarriak finkatzeko, jarraian emakumeek motibazio politikoko indarkeriako gertakarietan hartzen dituzten rolen kategorizazio bat aurkezten da¹². Esan daiteke kategoria edo rol horiek ez direla finkoak; aitzitik, baliteke aldi berean agertzea edo rol horietatik irteten diren kasuak ere egotea¹³. Horrexek erakusten du alderdi horretan gehiago ikertu behar dela. Dena den, pentsatzen da euskal kasuan eta aipatutako Latinoamerikako herrialdeetako kasuetan hiru rol nagusi hauek betetzen dituztela emakumeek:

1. Landuko dugun lehen rola **biktimarena** da. Zuzenean, emakumeek berariazko genero-indarkeria pairatzen dute indarkeria-agertokietan eta haien zuzeneko ondorioa diren egoeretan, hala nola lekualdaketan. Horrelako kasuetan emakumeen eta beste talde kaltebera batzuen aurka erabilitako sexu-indarkeria zabal aitortuta dago; hain zuzen ere, NBEk ekainaren 19a izendatu zuen Gatazketan Sexu Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna¹⁴.

Gainera, emakumeek zeharkako indarkeria ere pairatzen dute indarkeria-aldietan. Horrelakoetan, hildako eta desagertutako gehienak gizonak dira, baina amek, emakumeek, arrebek eta alabek ere zeharka sufritzen

12 Hemen eginda: Otero Martínez, J. [2024]. Emakumeen parte-hartzea memoriaren eraikuntzan, Euskadiko eta Guatemalako esperientziak. 8.-18. or.

13 Hemen adierazten den moduan: Mugen Gaietik [2017]. *Aproximación a la Participación de las Mujeres en la Pacificación Vasca*. 21. or.

14 Ikusi: Nazio Batuak. Gatazketan Sexu Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna [esteka].

dute eta haiei egokitzen zaie egia eta memoria bilatu eta erreibindikatzeko lanaz arduratzea. Egoera horrek birbiktimizazio-egoerak barne hartzen ditu, baita haien figura modu estrategikoan eta xede politikoekin erabiltzea ere. Horrekin guztiarekin, erronka hau sortzen da: «biktimizazioa saihestea, orokortzetik ihes egitea eta emakumeak sufritzaile gisa eta indarkeriaren hartzaile gisa erakusten dituen ikuspegia gainditzea» (Otero, 2024).

2. Ezkutatuagoa dagoen rol bat **bakearen eta bizikidetzaren alde diharduten emakumeena da**. Oro har, lan hori begi publikotik urrun egiten da eta emakumeek gutxiengo eskasa osatzen dute elkarrizketarako eta negoziatorako mahai formaletako gehiengoan. Haien lana gizartean aintzat ez hartu arren, horri esker sortzen da kontzientziazioa eta finka daiteke bakea gizartearen oinarritzko komunitateetan.

Rol hori bai espazio formaletan bai informaletan betetzen dute eta gizartean zigortuta ere egon da, emakumeek tradizionalki bete dituzten roletatik urrun dagoelako. Batez ere emakume latinoamerikarrentzat, jarrera horrek arriskuan jarri du haien segurtasuna¹⁵.

3. Emakumeek motibazio politikoko indarkeriazko agertokietan har dezaketen hirugarren rola **borrokalaria**¹⁶ da. Rol hori ez dator bat genero-rolen ondoriozko imajinario kolektiboarekin, zeinak adierazten baitu emakumea zaintza-lanen arduraduna dela eta eremu publikoan izaera pasiboa duela. Emakumearen figuraren eta bakearen arteko lotura estua ere sortzen duen narratiba hori ezesten duten kasu ugari daude, non emakumeek beren rol tradizionalak alde batera uzten dituzten eta indarkeriazko espazioetan aktiboki inplikatzeko diren.

Nabarmentzekoa da rol hori oso askotariko moduetan ager daitekeela. Motibazio politikoko indarkeria babesteko, baliteke indarkeriazko ekintzetan zuzenean parte hartzea, hala nola armak hartzea, edo beste modu batzuetan aritzea, adibidez, botere-abusua erabiltzea, indarkeria babesteko diskurtso politiko bat zabaltzea edo modu sotilagoetan jardutea, esate baterako, «heroiak adoratzuz» (Magallón, 2007).

Berriro ere, rol hori hartzeak zigor soziala ekar dezake, indarkeriazkoa ekarri ere; izan ere, inguruneak ez du onartzen genero-rol tradizionalak hausterik, ez euskal gizartean, ez aipatutako Latinoamerikako herrialdeetan.

15 Ikusi: Mugen Gainetik (2017). *Aproximación a la Participación de las Mujeres en la Pacificación Vasca*.

16 Informazio gehiago eskuratzeko baliabideak: Berghof Foundation fundazioaren I have to speak: Colombia (Short version) dokumentala, gaztelaniaz, ingelesezko azpitituluekin (<https://www.youtube.com/watch?v=sX7s6rAburc>); NCREn Nunca invisibles, mujeres farianas, adiós a la guerra dokumentalaren pasartea, 4:30-11:05 (<https://www.youtube.com/watch?v=gzmMzDwYe4Y>).



2. ARIKETA: Rolen konplexutasuna

Iturria: Baketik.

Hezkuntza-asmoa:

- Euskadiko eta Guatemalako gatazketan zenbait rol bete zituzten emakumeen lekukotzak ezagutzea eta lantzea.
- Onartzen ditugun edo gure antzekotzat jotzen ditugun genero-rolei buruz gogoeta egitea.

Zenbatetsitako denbora: ordu 1 eta erdi.

Beharrezko materiala: Eranskinaren kopia inprimatuak edo eranskina irakurtzeko ordenagailuak eta posizionamendu-dinamika egiteko beharrezko lekua duen gela bat.

Garapena:

Ariketa bi zatitan banatuta dago: bata banaka egin behar da eta bestea, ordea, taldean.

Banakako lana: Irakurri eranskinen «Emakumeak, gatazkak eta rolen konplexutasuna» kapitulua eta saiatu lekukotzetan rol desberdinak identifikatzen: biktimak, bakearen aldeko aktibistak eta indarkerian lagundu edo parte hartu dutenak. Zer beste rol identifikatu dituzu horietaz gain?

Aukeratu deigarriena iruditu zaizun lekukotza.

Talde-lana: Zutik eta zirkulu batean, boluntario bat erdialdean jarriko da eta aukeratu duen lekukotza irakurriko du. Taldeko beste kideek boluntarioarengana hurbildu edo harengandik urrundu beharko dute: alegia, pertsona horrenganako hurbiltasuna, ulermena edo enpatia sentitzen badute, hurbildu egingo dira eta, gaitzespena, ulertezintasuna edo deskonexioa sentitzen badute, ordea, urrundu egingo dira.

Eztabaidatxo bat hasiko da, zeinean ikasleek azalduko baitute zergatik kokatu diren hurbilago edo urrunago. Jarraian, ariketa lekukotza gehiagorekin errepikatuko da. Azkenean, talde-eztabaida bat irekiko da hausnartzeko ea zergatik dauden sinpatia handiagoa sortzen diguten rolak eta gaitzespen handiagoa sortzen diguten rolak eta ea genero-desparekotasunaren ondoriozko baldintzatzaileak diren. Hona hemen gogoetarako egin litezkeen galdera batzuk: Badago desagertu behar duen rolik?

Edo gizonen eta emakumeen partekatutako behar duten rolik? Edo bere horretan geratu behar duen rolik?



3. ARIKETA:

Gatazkan izandako genero-indarkeria eta sexu-indarkeria

Iturria: Baketik.

Hezkuntza-asmoa:

- Gatazka armatuko egoeretan sexu-indarkeriari ematen zaion erabilera ezagutzea.
- Indarkeria-mota horren biktimen egoerari ikuspegi interseksionala (emakumeak, indigenak, pobreak...) aplikatzea.

Zenbatetsitako denbora: 40 minutu.

Beharrezko materiala: Lineako edukiak proiektatzeko egokia den gela.

Garapena:

Ariketa honetan, *Mi cuerpo dice la verdad* eleberri grafikoaren pasarte baten bertsio biziduna hartuko da oinarritzat, zeinak emakumeek Kolonbiako gatazka armatuaren testuinguruan jasandako sexu-indarkeria baitu hizpide. Kolonbiako Egiaren Batzordeak (Comisión de la Verdad) bultzatutako ekimenek, eleberri hau sortzea ekarri duenak bezala, emakumeek sendatze-prozesuaren zati gisa beren esperientziak eta beren mina partekatzeko espazioak sortzeko balio izan dute.

Ariketa honetan ikuspegi interseksionala lantzen da. Horrela, indarkeria-mota horren biktimengan jartzen da arreta eta kontuan hartzen da emakumeak izateaz gain arrazializatuak, LGBTIQ+ komunitatekoak nahiz landa-inguruneak ziren edo pobrezia-egoeretan zeuden, besteak beste.

6 minutuko bideoa ikusi ondoren, taldean gogoeta egiteko tarte bat utziko da. Hona hemen elkarrizketarako lagungarriak izan daitezkeen galdera batzuk: sexu-indarkeria «gerra-armatzat» edo ekintza-estrategiatzat jo al daiteke gatazka armatu batean?, kasuren bat ezagutzen al duzu?, zure ustez, nola eragin diezaioke emakume bati bere esperientzia beste emakume batzuekin partekatzeak?, entzuteko eta partekatzeko espazio horiek beharrezkoak al dira gizarte giza bakerantz aurrera egiteko?

Beste jarraibide batzuk: Irakasleak galderak moldatu eta egokiak iruditzen zaizkionak gehi ditzake.



ERANSKINA: Emakumeen parte-hartzea memoriaren eraikuntzan, Euskadiko eta Guatemalako esperientziak ikerketaren zatia

[Otero Martínez, J., 2024, 51.-56. or.]

Emakumeak, gatazkak eta rolen konplexutasuna

AMAK

Babesleak

Guatemalako gerra bete-betean, ihes egin behar duten familiak daude. Batzuk herrialdearen barruan mugitzen dira, zona batetik bestera. Beste batzuk muga zeharkatu eta erbestera doaz, Dora eta Gregoria bezala. Badago beste talde bat, mendira igo beste aukerarik ez daukana. Hori da Luisaren kasua (izena asmatu dugu ez dakigulako). Luisa eta haren senarra mendira igotzen dira babesle hartzeko eta ezkutatzeko. Aldi horretan, Luisa birritan geratzen da haurdun. Erditu ondoren, bera irteten da egoera nola dagoen ikustera eta berak ematen dizkio jarraibideak senarrari. Ordu honetan itzultzen ez banaiz, beste leku honetara joan behar duzue. Nik aurkituko zaituztet.

Semeak eskaintzea: borrokagatik edo babesagatik pairakorrak.

Gregoriak ORParekin lan egiten jarraitzen du tarte batez, baina badago inola ere onartzen ez duen zerbait. Ama gisa eta konbentzitzeko gaitasuna duen emakume gisa, beste emakume errefuxiatu batzuk beren semeak berriz Guatemalara bidaltzera limur ditzala nahi dute, semeok herriaren eskubideen alde borrokatu daitezzen.

«Nire lana emakumeekin egotea ere bazen, Guatemalako gatazkako borrokarako kontzientziazteko. Emakumeak kontzientziatu? Zer esateko? "Emakumeak, har dezagun arma bat eta goazen Guatemalara". Ezin

da hori egin. Emakume horiek bazetozen jada negarrez eta indarkeria-historiekin. Ez. Neure buruari esan nion neure baitan ez nuela konplizea izan nahi, baina lan egin eta zer erein nahi genuen pentsa genezakeen. Zati hori ezin izan nuen bete. Nik emakumeak neu banintz bezala hartzen nituen. Pentsatzen nuen seme bat edukiko banu eta Guatemalara bidaltzeko kontzientziatuko banindute... Ez nuen hori egin nahi izan».

Olatz Dañobeitia Ceballosek ere amaren zereginaz hitz egiten du *Indarkeriak dantzatzen behartzen gaituzte* liburuan. Ama semeak borrokarako eskaintzen dituen emakume pairakor gisa. Figura horrek, gainera, rol horretatik kanpo espazio publikoa hartzen duen emakume politikoaren figurarekin talka egiten du:

«[...] Ezker Abertzalearen genero-ideologiak amak goraiatu zituela esan dezakegu, baina betiere abertzaletasunaren ikuspegitik, nazio eta borrokarentzat semeak eskaintzen zituen figura gisa. Horregatik, hautu hori egin ez zuten amak itzalean geratuko dira. Hamiltonen (2007) arabera, ama-figura horren goraiatzeak itzal egin zien bestelako ekarpena egiten ari ziren beste emakumei [...]. Hau da, amatasunaz beste, militantzia politikoan jardun duen emakumeari eragin dio amaren figurak».

Guatemalako gerran, sistema militarrean parte hartzea nahitaezkoa zen. Armadak kamioiak instalatzen zituen eta gazteak herrietan eta herrixketan bilatzen zituen. Gazte batzuek uko egin zioten eta, beren borondatez eta arrazoi ideologikoengatik, azkenean gerrillan sartu ziren. Hala ere, gerrak aurrera egin ahala, jazarpeneko eta nahitaezko desagertutako kasuek gora egin zuten. Hala, emakume askok, ama etsiek, semeak zerbitzu militarra egitera animatu zituzten, nahiz eta horrek esan nahi haien mentalitatea eta pentsaera aldatuko zirela; izan ere, desagertutatik eta hilketetatik babesteko modua zela uste zuten.

Dena erortzen denean: sostengatzaileak

«Nire ama sostengatzailea izan zen; izan ere, nire aita alkoholean galdu zela ikusita, nire ama zen bere alaben biziraupena lortzeko modua. Zortzi ginen eta, emakume guztiek bezala, gatazkan bizitza sostengatu zuen, bere seme-alabak babestuz».

[Lourdes, Guatemala]

Esterren aita katekista eta Eliza Katolikoaren hitzaren ordezkaria da Guatemalako komunitate batean. Eliza zerbitzatzen 30 urte baino gehiago emanak dituenean, apaiz batekin dagoela eramaten dute. Hurrengo egunetan, Esterren ama, zeina inoiz ez baita espazio pribatutik irten, kartzelak, ospitaleak eta segurtasun-postuak bisitatzen, bakarrik bidaiatzen eta jende askori galderak egiten hasten da. Ez Ester ez haren amak ez dute inoiz berriro ikusi. Esterrek 20 urte dauzka herrialdeko beste leku batera mugitzen direnean. Esterren ama biktimen eta desagertutakoen ahaideen talde batekin elkartzen da eta alaba darama, zeinak urte asko geroago bilatzen jarraitzen baitu. Gaur egun, amak utzitako ikaskuntzaren ondoren, Esterren min pertsonalak transzenditu egin du eta kausa kolektiboa eta ekintza politikoa bihurtu da.

Urratsak etxetik kanpo

Esterren aita desagertzen denean eta Ester eta haren ama beste leku batera doazenean, biek bilatzen dute diru-sarrerak lortzeko modua. Desagertutakoen minarekin eta gizonaren bilaketarekin bateragarri egiten duten zeregin zaila da. Dena den, Esterrek graduatzea eta lan egitea lortzen du. Gainera, amak eta berak kide diren Elkar Laguntzeko Taldearekin bateragarri egin dezakete lana.

«39 urterekin, oraindik ez daukat ez egirik ez justiziarik. Orain nire borrokak amaren oroitzapenean jarraitzen du, egiaren zain zendu baitzen. Orain nire borrokak haren oroitzapenean jarraitzen du».

Gregoria aipatu dugunaren beste adibide bat da: etxeko espazio pribatuan soilik egotea ahalbidetzen zaien emakume bat, kanpora irteten dena gerra bete-betean egon arren, beste herrialde batean errefuxiatuta egon arren eta senarraren tratu txarra behin eta berriro jaso arren. Gregoria hamakak ehuntzen hasten denean, beste 5 emakumerekin bakarrik ehuntzen du. Lana nola egin ondo ikasi ondoren, Gregoriak eta haren lankideek beste 5 emakume gonbidatzen dituzte. Horrela, 80 emakumeko talde bat eratzen da, zeina hamakak esportatzeko negozio batean diharduten ehuleen sarea bihurtzen baita azkenean.

Ekintza ideologian

Indarkeriaren erabilerarekiko harremana

Miren ETAko kidea da 1978ra arte eta ikasle-propagandarekin lotutako ekintzetan parte hartuz hasten da. Haren anaiak ere kausan inplikaturik daude eta espetxeratu egiten dituzte, bakoitza leku batean. Mirenek alde egin behar du. Beste aldera, berak dioen moduan, eta komandoetan parte hartzen du. Are gehiago, 1976an, Franco hilda dagoela, Segoviako ihesaldiko kanpo-komandoko emakume bakarra da eta, gero, ihes egitea lortu zuten bost pertsonetako bat. «Guk borrokalari antifrankista nazionalistak ginen».

«Bizi genuen egoerak baldintzatutako erabaki pertsonala izan zen». Nik frankismoa garaitzeko borrokan hor egoteko betebeharrak sentitzen nuen, argi eta garbi. [...] Nik ez nuen eduki nire adineko jende guztiak eduki zuten gaztaro berbera. Lerro horretatik genbiltzanok bizitza paralelo bat geneukan».

Mirenek sindikatu-borroka, herritar-mugimendua eta mugimendu feminista dauzka gogoan. Hala ere, ez da oroitzen inguruan edo erabakiak hartzeko lekuetan emakumeak ikusi izanaz. Komentario eta indarkeria matxistaz, berriz, oroitzen da, zalantza-izpirik gabe.

«Nire senarra kartzelan egon zen eta, lehen egunean irten zenean, bere lagun minak esan zion: “Badakizu Miren beste aldean mundu guztiarekin oheratzen dela?”. Hori gogorra da, e?

Kartzelatik irten berri den gizon bati. Begira noraino heltzen zen emakumeekiko kontua».

Bere ustez ahotsek lekua izango duten beste bide batzuk zabaltzen direnean uzten du Mirenek erakundea. Hurrengo urteetan, ETAk beste norabide bat hartzen duenean, Martak oso txarto pasatu zuela adierazten du. «Ni oso txarto sentitu naiz, izugarri txarto, biktimario sentitzen nintzelako. Eta ez nintzen horrelakorik». Olatz Dañobeitia Ceballosen ikerketan [2021], zeinak ETAko kide izan diren emakumeen lekukotzak bildu eta kokaturiko ezagutzan oinarrituta horri buruzko analisia egiten baitu, zera azaltzen du:

«ETAko emakumeen errepresentazioak auzitan jartzen ditu eta estereotipo sexualez betetzea daudela adierazi. Ondorioz, emakumeak biktimizat eta agentzia gabekotzat aurkeztu ohi dira. Kontrara, berak ikertutako emakumeek esplizituki adierazi zioten inortxok ez ziela ziria sartu, ezta behartu ere, funtsean, motibazio politiko eta pertsonalengatik sartu zirela ETAn, eta ez bikote-gizonen eraginez».

Azterketa honen hasieran Charlotte Cordayren historia kontatu da: 1793an Jean-Paul Marat jakobinoa ideal politikoengatik erail zuen, baina, gillotinatuta zutenean, jakobinoek gizon batekiko maitasunari esleitu zioten ekintza. Mendeak igaro dira eta oraindik ere zalantzan jartzen dira emakumeek indarra erabiltzeko dituzten motibazioak, gizonenak ez bezala. Olatz Dañobeitia Ceballosen azterketan, badago elkarrizketatutako emakumeetako baten lekukotza bat, zeinak orobat aipatzen baitu nolakotzat hartzen dituzten emakumeak, alegia, ez dituztela bakartzat eta agentziaduntzat, agentzetat, jotzen, gizonen mendekotzat baizik:

«[...] beren kaken gordetzailak izateko erabiltzen gintuzten. [...] Are gehiago, gure epaia halaxe da. Guk mutilek baino kondena laburragoa daukagu. Gu “kolaboratzaileak” omen garelako, eta egia da».

Gatazkan esnatzea

Guatemalan biztanleria zibilak eta, batez ere, komunitate indigenek oso jazarpen larria pairatu zuten urteetan. Horren ondorioz, emakume askok, nahiz eta ikuspegi ideologikorik ez eduki, familiekin mendira ihes egin zuten babesa hartzeko. Emakume horietako askok, azkenean, armak hartu zituzten. Lourdesek kontatzen du:

«Biztanle guatemalar gehienak indigenak direnez, altxatu ziren emakume gehienak ere indigenak ziren. Batzuk familia babesteko beharragatik, eta oso gutxi ideologiagatik. Indigenak ez ziren emakumeek askoz ere argiago zeukaten zergatik ziren talde subertsibo horien kide. Haien ulertu egiten zuten. Hala ere, beste emakume batzuek armak hartu zituzten eta denborarekin jakin zuten zehazki zergatik zeuden mendietan, zeregin bat betetzen eta gatazka-egoera horren aurrean beren giza eskubideen defentsan parte hartzen».

Partaidetza politikoa eta espazio publikoaren okupazioa

Dorak kontatzen du Guatemalan emakume askok parte hartu zutela gerran zenbait mailatan. «Zuzendaritzan ere bai, baina oso gutxi, maila horretako buruzagi gehien-gehienak gizonak ziren eta. Erdi-mailako arduradunen artean ere izan ziren emakume batzuk, baina oso gutxi. Borrokalarien mailan gehiago izan ziren, alegia, armak hartu zituzten eta unitate militarren parte izan ziren emakumeak. Baina emakumeen partaidetzarik handiena komunitateetan izan zen, babes-oinarri gisa. Maila horretan, [emakumeen] partaidetza oso oso handia izan zen».

Gloriak gaineratzen du oinarri horietan zeuden partaideak askotarikoak zirela. Izan ere, Guatemalak kosmobisio berezia duten zenbait herri biltzen ditu eta, ondorioz, proposamenak desberdinak dira, «beharrak, sufritzeko moduak eta indarkeriari aurre egiteko moduak ere desberdinak direlako». Emakume indigenek eta herri mestizoek beste modu batean sufritu zuten gerran eta berariazko indarkeria bati egin zioten aurre, zeinak homogeneizatu egin baitzituen eta aniztasun guztia alde batera utzi baitzuen ikuspegi eta proposamen politikoetan.

Bakearen Aldeko Koordinakundeko Susanak ere esaten du Euskal Herriko gatazkan emakumeek «inurritxoena» egiten zutela bere erakundean, nahiz eta gehienetan aitortza publikoan atzean geratu. Susanak Maixabel Lasa ere aipatzen du, gatazkan alargun geratu ziren emakumeen aitortzarako lehen bulkada eman zuen emakume gisa. Mirenek, aldiz, honako hau azaltzen du:

«Gatazka honetan, emakumeak biktima sekundarioak izan dira, ez direlako beraiek izan hildakoak, baizik eta senarra, semea... Biktima ugari, gizonak ere agertzen diren arren, bozeramaile eta beren minaren aitortzaren erreibindikatzailerik bihurtu dira. Uste dut horrek emakumeetako asko aldatu dituela: gizonaren atzean dauden pertsonen rola aldatu dute».

Esterrek, Guatemalako kasuaren eta Euskal Herrikoaren artean distantzia eta desberdintasun handiak egon arren, antzeko zerbait dio eta emakume batzuen esnaeraz hitz egiten du:

«Emakume asko politika partidistan borrokatzen ari dira eta uste dut hori gatazkan bizitakoaren ondorioz etorri zela. Une horretan, emakumea azkenik esnatu zen eta baliotsua dela eta parte har dezakeela konturatu zen. Familia-mailan ere, emakumea gailentzen eta bere eskubideak defendatzeko borrokatzen hasi zen».

Partaidetza politikoa eta espazio publikoaren okupazioa

Dorak kontatzen du Guatemalan emakume askok parte hartu zutela gerran zenbait mailatan. «Zuzendaritzan ere bai, baina oso gutxi, maila horretako buruzagi gehien-gehienak gizonak ziren eta. Erdi-mailako arduradunen artean ere izan ziren emakume batzuk, baina oso gutxi. Borrokalarien mailan gehiago izan ziren, alegia, armak hartu zituzten eta unitate militarren parte izan ziren emakumeak. Baina emakumeen partaidetzarik handiena komunitateetan izan zen, babes-oinarri gisa. Maila horretan, [emakumeen] partaidetza oso oso handia izan zen».

Gloriak gaineratzen du oinarri horietan zeuden partaideak askotarikoak zirela. Izan ere, Guatemalak kosmobisio berezia duten zenbait herri biltzen ditu eta, ondorioz, proposamenak desberdinak dira, «beharrak, sufritzeko moduak eta indarkeriari aurre egiteko moduak ere desberdinak direlako». Emakume indigenek eta herri mestizoek beste modu batean sufritu zuten gerran eta berariazko indarkeria bati egin zioten aurre, zeinak homogeneizatu egin baitzituen eta aniztasun guztia alde batera utzi baitzuen ikuspegi eta proposamen politikoetan.

Bakearen Aldeko Koordinakundeko Susanak ere esaten du Euskal Herriko gatazkan emakumeek «inurritxoena» egiten zutela bere erakundean, nahiz eta gehienetan aitortza publikoan atzean geratu. Susanak Maixabel Lasa ere aipatzen du, gatazkan alargun geratu ziren emakumeen aitortzarako lehen bulkada eman zuen emakume gisa. Mirenek, aldiz, honako hau azaltzen du:

«Gatazka honetan, emakumeak biktima sekundarioak izan dira, ez direlako beraiek izan hildakoak, baizik eta senarra, semea... Biktima ugari, gizonak ere agertzen diren arren, bozeramaile eta beren minaren aitortzaren erreibindikatzailerik bihurtu dira. Uste dut horrek emakumeetako asko aldatu dituela: gizonaren atzean dauden pertsonen rola aldatu dute».

Esterrek, Guatemalako kasuaren eta Euskal Herrikoaren artean distantzia eta desberdintasun handiak egon arren, antzeko zerbait dio eta emakume batzuen esnaeraz hitz egiten du:

«Emakume asko politika partidistan borrokatzen ari dira eta uste dut hori gatazkan bizitakoaren ondorioz etorri zela. Une horretan, emakumea azkenik esnatu zen eta baliotsua dela eta parte har dezakeela konturatu zen. Familia-mailan ere, emakumea gailentzen eta bere eskubideak defendatzeko borrokatzen hasi zen».

ZERBITZARIAK

Konplexua da emakumeen rolek gatazka-testuinguruetan izaten duten aldaketaz hitz egitea; izan ere, azterketa honetan ikusten den bezala, emakumeak beste espazio batzuetara irteten dira eta gizonentzat bakarrik erreserbatuta dauden esperientzia batzuez jabetzen dira. Hala ere, sistema patriarkala beste indarkeria batzuek jotzen duten melodiaren doinuan mugitzen da. Eta horrek esan nahi du emakumeei esleitutako roletako asko larriagotu eta areagotu besterik ez direla egiten gatazka-testuinguruetan.

Adibidez, emakumeentzat erreserbatutako zereginetako bat ama izatea bada, gatazka-testuinguruan hori areagotu egiten da. Bat-batean, aldi berean ama eta aita bihurtzen dira. Edo emakumeei ama izateko gaitasuna lapurtzen diete. Edo behartu egiten dituzte. Eta amak izan behar dute. Keinu bakoitzean eta ekintza bakoitzean, emakumeak autonomiara eta indarkeriatik aske izatera pixka bat gehiago hurbiltzen dira, baina, egitura patriarkalaren ondorioz, orkatiletan pisuak loturik edukita urpean ibiltzea bezala da.

Horregatik, gatazka-testuinguruetan ere, emakumeak ez dira zerbitzari-roletik libratzen. Guatemalako gerran, badaude destakamentu militarrek non gizonak emakumeak bahitzen baitituzte destakamentua garbitu eta janaria presta dezaten. Arantxa Urretabizkaia idazle bakezaleak honako hau kontatzen du elkarrizketan:

«[...] ETAn emakumeen zereginari buruz [...] salatzen da, adibidez, gehiago hasieran, bada komando bat etxe batean bazegoen, ahalegintzen zirela han emakume bat egon zedin, baina ez sexu zerbitzuetarako, baizik eta bazkaria prestatzeko... Hori bizi izan zuen batek kontatzen zidan behin: 'zenbat patata tortilla ez dudan egin nik'. Gizon horiek zeuden heziak modu hortan. Beti zeukaten ama bat haien zerbitzura eta funtzionatu ahal izateko, behar zuten



4. modulua:



Bakegintza- prozesuak

«Gerrari edo bi talderen arteko indarkeriari amaiera emateko elkarrizketen, akordioen eta jardueren multzoari» esaten zaio bake-prozesua [Berghof Foundation, d. g.]. Prozesu horiek ez dira negoziatzaileen mahaietan bakarrik gauzatzen; aitzitik, gizarte-mailan badago gatazka eraldatzeko prozesu bat, zeinean sozietate zibileko beste eragile batzuek hartzen baitute parte. Sarritan, oinarritzko gizarte-mailan diharduten eragileak, batez ere emakumeak, oharkabean gertatzen dira bake-prozesua osatzen duenaren imajinarioan¹⁷.

Horren eraginez, 2000. urtean NBEko Segurtasun Kontseiluak 1325. ebazpena sinatu zuen, emakumeei, bakeari eta segurtasunari buruzko agendarena¹⁸. Emakumeek gatazka armatuen prebentzioan, kudeaketan eta konponketan, bake-prozesuak barne, aktiboki parte hartzearen alde egiten duen nazioarteko tresna nagusia da. Estatuak ebazpen hori ezarri duten moduari dagokionez, badago hobetzeko tarte handia, emakumeen partaidetza gutxiengoduna baita oraindik ere¹⁹.

Kontu hori epe luzean ere bada garrantzitsua; izan ere, emakumeak bake-prozesuetatik kanpo uzten dituztenean, «ondoren erabakiak hartzeko espazioetatik kanpo uzten dituzte, baita bake-akordioak sortzen dituzten erakundeetatik kanpo ere, eta gizarte sexista eta diskriminatzaileak finkatzen dira» [Villemas, 2006]. Parte hartzen dutenean, aldiz, lortutako akordioak eta bakeak iraunkorragoak dira²⁰.

Gizarte-mailan, «tokian bertan bakearen alde diharduten emakumeak izan ohi dira gatazkek suntsitu duen gizarte-ehuna leheneratzeaz arduratzen direnak» [Coomaraswamy, 2015:169]. Horretatik guztitik ondorioztatzen da emakumeak oharkabean gertatzen den maila batean dihardutela bakea finkatzen, erabakiak hartzeko espazio politiko eta instituzionaletatik kanpo egin ohi dutelako lan, eta, hala ere, lan horrek trantsizio eraginkorren gakoak gordetzen ditu.

17 Ikusi: Villemas Ariño, M. [2006]. *Hallar nuevas palabras, crear nuevos métodos: La participación de las mujeres en los procesos de paz*. Madril: Centro de Investigación para la Paz.

18 Dokumentua hemen dago eskuragarri: NBE [2000], 1235. ebazpena. [<https://www.acnur.org/fileadmin/Documentos/BDL/2006/1759.pdf>]

19 Informazio gehiago: NBE Emakumeak. *Hechos y cifras: Mujeres, paz y seguridad*. [https://www.unwomen.org/es/what-we-do/peace-and-security/facts-and-figures#_Toc85731439]

20 Lan honetan oinarrituta: Coomaraswamy, R. [2015]. *Prevenir los conflictos, transformar la justicia, garantizar la paz: Estudio mundial sobre la aplicación de la resolución 1325 del Consejo de Seguridad de las Naciones Unidas*. NBE Emakumeak: <https://wps.unwomen.org/resources/>



1. ARIKETA:

***Mariposas en el Hierro* dokumentala**

Iturria: Baketik.

Hezkuntza-asmoa:

- Bakegintza-prozesuei buruz eta emakumeek prozesuotan duten presentziari buruz gogoeta egitea.
- Zenbait emakumeren bizipenak eta bizikidetzari egin dioten ekarpena ezagutzea.

Zenbatetsitako denbora: ordu 1 eta 40 minutu.

Beharrezko materiala: Dokumentala proiektatzeko egokia den gela.

Garapena:

Irakasleak *Mariposas en el hierro* dokumentalaren gaia aurkeztuko du. Hau da sinopsia: «Dokumentalak Euskadin bakearen aldeko apustu argia egiten duten emakumeen ahotsak biltzen ditu, eta horiekin batera, beste latitude batzuetan bidea ireki dutenenak. Guztiak dira desberdinak. Orotara, indarkeriarik gabeko Euskadi baterantz abiatzen den bidea egiten hasteko ekarpen indartsua osatzen dute. Bide hori haien partaidetzarik gabe egitea ez litzateke eraginkorra» (SSIFF).

Ordu 1 irauten duen dokumentala ikusi ondoren, eztabaida bat hasiko da gelan. Horretarako, galdera hauek erabilgarriak izan daitezke:

- Zer lekukotzak hunkitu zaituzte gehien?
- Badago emakume horiei edo horietako bati galdetu nahiko zeniekeen ezer?
- Zer ondorio atera dezakegu dokumentala ikusi ondoren?

Beste jarraibide batzuk:

Irakasleak galderak moldatu eta egokiak iruditzen zaizkionak gehi ditzake.

Gida honetan aipatutako kasuetako bakoitza (Euskadi, Kolonbia, El Salvador, Guatemala) bere bakegintza-prozesuan ibili da, bere idiosinkrasiarekin. Ikasleek oro har denak ezagutzeko, emakumeek prozesuotan egin duten lana ere kontuan hartzen duen jarduera bat proposatzen da.



2. ARIKETA: Podcast-saioa

Iturria: Baketik.

Zenbatetsitako denbora

- Aztertutako herrialdeetako bakegintza-prozesuei buruzko ezagutza-base bat eratzea.
- Bake-prozesuen eremuan ikasleek ikertzeko eta edukia komunikatzeko duten gaitasuna garatzea.

Tiempo estimado: 2 ordu.

Beharrezko materiala: Informazioa bilatzeko gailuak, grabagailu edo mugikor bat eta podcast-kapituluak erreproduzitzeko bozgorailuak

Garapena:


Taldea 4 lantaldetan banatuko da. Bakoitzari herrialde bat (Euskadi, Kolonbia, El Salvador edo Guatemala) esleituko zaio eta lurralde horretan garatutako bake-prozesuari buruzko informazioa bildu beharko du. Biltzen dituzten edukiak antolatuko dituzte eta podcast-formatuan audio bat grabatzeko gidoia sortuko dute.

Albistegi baten formatua, elkarrizketa batena, kronika batena edo haien ustez beste taldeentzat erakargarriena izan daitekeena eman diezaioke ikasleek podcastari. 30 minutu edukiko dituzte podcasta grabatzeko. Gero, ariketari amaiera emateko, beste taldeekin partekatuko dute.

Beste jarraibide batzuk:

Egindako lanetan prozesuetako gakoak egon daitezen, bilaketan batez ere elementu hauek identifikatzea eskatuko zaie: aldia, eragileak, mugarri politikoak eta gizarte-mugimenduak. Gainera, interesgarria litzateke emakumeek prozesuetan edo bake-prozesuaren testuinguruetan izan duten presentzian arreta berezia jartzea. Presente egon ziren? Eta, hala bada, zer eremutan (instituzionalean, aktibistan, politikoan...). Zein izan zen haien zeregina? Figura gailenik edo ezagunik aurkitu dute?

5. modulua:



Biktimaren figura eta memoria

Gatazka-egoeretako eta gatazkaren ondorengo egoeretako erronka handietako bat da biktimak aintzat hartzea. Funtsezko urratsa da biktima diren aldetik beren eskubideak erabili ahal izateko. Zeregin horretan laguntzeko, zuzenbideko tresna unibertsalak eta nazioarteko erakundeak, hala nola Nazio Batuak, dauzkagu. Biktima-izaera askotariko arrazoiengatik har daiteke. Hain zuzen ere, Nazio Batuen arabera, honako hauek jotzen dira biktimatzat: «estatu kideetan indarrean dagoen zigor-legeria urratzen duten ekintzen edo ez-egiteen ondorioz [botere-abusua barne], banaka zein taldeka, kalteak, hala nola lesio fisikoak edo mentalak, sufrimendu emozionala, galera finantzarioa edo funtsezko eskubideen funtsezko galera, pairatu dituzten pertsona guztiak» (NBE, 1985).

Haien erasotzailea «identifikatu, atxilotu, jazarri edo erruduntzat jo» ez badute ere jotzen dira biktimatzat (NBE, 1985). Zuzeneko biktimak izan diren pertsonen gain, honako hauek ere hartzen dira biktimatzat: «biktimarekin harreman estua duten pertsonak edo ahaideak eta arriskuan zegoen biktimari laguntzeko edo biktimizazioa prebenitzeko esku hartzean kalteak hartu dituzten pertsonak» (NBE, 1985). Horrek esan nahi du zuzeneko nahiz zeharkako biktimen kopurua ugari egiten dela eta zuzeneko biktimaren ingurunekoei eragindako sufrimendua ere hartzen dela aintzat.

Biktima ooren eskubideetako bat erreparazioerako eskubidea da. Erreparazioak aitortza ere hartu behar du barne, alegia, lehengoratu, kalte-ordain ekonomikoa eman, errehabilitatu, gogobete eta errepikatuko ez delako bermeak eman²¹. Biktimei erreparazioa emateko ahalegin horien artean, biktimarekin elkarlanean garatzen diren zenbait lan-mekanismo daude. Justizia trantsizionalean eta justizia erreparatiboan jarriko dugu arreta.

Justizia trantsizionala

Honako hau da justizia trantsizionala: «gizarte batek eskala handiko abusuz osaturiko arazoak konpontzeko egiten dituen saioekin lotutako askotariko prozesuak eta mekanismoak, erantzuleak beren egintzen kontu emateko, justiziarik laguntzeko eta adiskidetzera lortzeko helburuarekin» (NBE, 2004). Mota honetako justiziak kontuan hartzen dituen askotariko alderdiak egia, justiziarik, erreparazioaren eta ez errepikatzearen bermeen printzipioetan ere islatzen dira.

Euskal kasuaren testuinguruan, ez da egin Espainiako Gobernuak sustaturiko justizia trantsizionaleko prozesu formalik, baina euskal erakundeek, hala nola Eusko Jaurlaritzak eta udalek, justizia trantsizionalean oinarritutako ekimenak gauzatu dituzte, justiziarik esku hartu gabe:

- Argituz giza eskubideen aldeko elkartearen «Memoria partekatu baterantz» tokiko txostenak.
- Aranzadi Zientzia Elkartearen «Motibazio politikoko indarkeria eta giza eskubideen urraketa larriak» ikerketak.
- Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Biktima eta Aniztasun Zuzendaritzak motibazio politikoko indarkeriari buruz sustatutako zenbait ikerketa, biktimizazio desberdinak xede izan dituztenak, eta egia ezagutzeko eta motibazio politikoko indarkeriaren ondorioz giza eskubideen urraketa pairatu

21 Informazio gehiago hemen: NBE [2005/12/15]. Giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen urraketa nabariaren eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktimarek errekursoak jartzeko eta erreparazioak eskuratzeko duten eskubideari buruzko oinarriko printzipioak eta jarraibideak. Batzar Nagusiak emandako ebazpena. <https://www.ohchr.org/es/instruments-mechanisms/instruments/basic-principles-and-guidelines-right-remedy-and-reparation>

dituzten biktimei erreparazioa eskaintzeko dekretuak eta legeak:

- 107/2012 DEKRETUA, ekainaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoan, 1960tik 1978ra bitartean, motibazio politikoko indarkeria-egoeran izandako giza eskubideen urraketen ondorioz sufrimendu bidegabeak jasan zituzten biktimak aitortzekoa eta biktima horiei ordainak ematekoa.
- 12/2016 LEGEA, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeria egoeran giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa.

Justizia errestitutiboa

Sistema judicial arruntak biktimei arretarik ez emateagatik sortu zen justizia errestitutiboa; izan ere, sistema arruntak delitua eta delitugilea zigortzea du xede, eta ez hainbeste biktimari errestitutazioa eta ordaina eskaintzea.

Nazio Batuen Justizia Errestitutiboko Programei buruzko Eskuliburuaren edizio guztietan²², adierazten da justizia errestitutiboak alternatiba bat eskaintzen diela bai delitu bat egin dutenei bai biktimei eta ukitutako komunitateei. Egindako kalteak minimizatzea eta konpontzea xede duen partaidetza-prozesu seguru bat sustatzen da. Ikuspegi horrek delituaren ondorioen erantzukizun pertsonala gain hartzea dakar, baita epe luzean banako eta talde zehatzen bizitzetan izan dituen ondorioak aitortzea ere, lege-izaera soilaz haraindi²³.

- Euskal kasuaren testuinguruan, justizia errestitutiboko ekimenen artean, adibidez, ETaren biktimen eta ETaren kide ohien arteko topaketa errestitutiboak daude, 2011tik aurrera Nanclores Bidetik bultzatutakoak.
- *Glencree* ekimena, zeinak zeinu desberdinetako biktimak bildu baitzituen zenbait fasetan Irlandako Glencree herrian, Eusko Jaurlaritzako Biktima Zuzendaritzak bultzatuta.
- Zeinu desberdinetako motibazio politikoko indarkeriaren biktimen errestitutitatea euskal herritarrengana hurbiltzea xede duten udal-ekimen komunitarioak.

22 Ikusi: NBE [2006]. *Justizia errestitutiboko programei buruzko eskuliburu*. https://www.unodc.org/documents/justice-and-prison-reform/Manual_sobre_programas_de_justicia_restaurativa.pdf. NBE [2020]. *Handbook on restorative justice programmes*. 2. argitalpena. https://www.unodc.org/documents/justice-and-prison-reform/20-01146_Handbook_on_Restorative_Justice_Programmes.pdf

23 Lan honetan oinarrituta: Varona, G [2021]. *Introducción a la justicia restaurativa. Material de apoyo, formación Baketik*.

1. ARIKETA:

Ozpinaren sindromea zineforuma

Iturria: Mugen Gaietik eta Baketik.

Hezkuntza-asmoa:

- Ikasleak Guatemalako biktimen errealitatera eta memoria-prozesuetara hurbiltzea.
- Memoria-prozesuei eta egiaren bilaketari buruzko gogoeta sustatzea, genero-begirada integratzaile batetik.

Zenbatetsitako denbora: 2 ordu.

Beharrezko materiala: Lineako edukiak proiektatzeko egokia den gela.

Garapena:

Ariketa honetan, Mugen Gaietik erakundeak eta Zazpi T'erdiko produktoreak errealizatutako *Ozpinaren sindromea/Sindrome del vinagre* dokumentala, Guatemalako barne-gatazkan gertatutakoa argitzeko, biktimak aintzat hartzeko eta oraindik desagertuta dauden 45.000 pertsona baino gehiago bilatzeko borrokan ari diren emakumeei buruzkoa, ikusiko dute ikasleek.

Dokumentalean zenbait eremuri buruz egiten da gogoeta. Bideoaren pasarte batzuk bakarrik ikustea gomendatzen dugu, landu nahi den gaiaren arabera.

Hauek dira jorratutako gaiak eta haien kokapena:

1. Guatemalako gatazka armatuaren testuingurua eta historia: 08:00 minututik 12:18 minutura arte.
2. Desagertutako ahaideen bilatzailea den emakumearen figura: 12:18 minututik 16:00 minutura arte.
3. Desagertuak: 17:20 minututik 20:30 minutura arte.
4. Desagertuak identifikatzeko lan forentsea: 20:40 minututik 22:52 minutura arte.
5. Kontakizunaren garrantzia memoria historikoaren eraikuntzan: 23:00 minututik 25:33 minutura arte.
6. Gatazkan desagertutako emakumeak: 25:36 minututik 30:40 minutura arte.
7. Memoria eraikitzen ari diren emakume indigenak: 30:40 minututik 32:50 minutura arte.
8. Bakegintza: 39:00 minututik 41:29 minutura arte.
9. Desagertuen gorpuzkiak ahaideei itzultzea: 41:30 minututik 47:40 minutura arte.
10. Memoriaren eraikuntza: 52:47 minututik 54:40 minutura arte.

Bideoaren zatiak ikusi aurretik, galdera hauek egingo zaizkie ikasleei, prestaketa moduan:

- (Bilatzaileen figurari buruz) Nork bilatzen ditu gatazketan desagertu diren pertsonak?
- Memoria eraikitze garrantzitsua al da zer gertatu zen jakitea?
- Euskadiko lekuren bat, data nabarmenen bat, monumenturen bat edo beste memoria-elementuren bat izendatzeko gai al zinateke?

Landu nahi diren dokumental-zatiak ikusi ondoren, gelan gogoeta egingo da. Talde txikiagoetan ere egin daiteke, baita banan-banan ere, idatziz, gero denekin partekatzeko. Galdera hauek lagungarriak izan daitezke elkarriaz unitate honetan heldu nahi diegun gaietara bideratzeko:

- Egiaren, justiziaren, erreparazioaren eta ez errepikatzeko bermeen printzipioetatik, zein lortu dira, zure ustez, Guatemalako kasuan? Eta Euskadikoan?
- Behin gatazka armatua amaituta, indarkeria gelditu al da? Hala ez bada, zer talde dira ukituena?
- Iragana aitortzeak eta zuzeneko biktimen ahaideekin lan egiteak ekarpenik egiten al dio bizikidetzaren baketsu baten eraikuntzari?
- Emakumeek funtsezko zereginik al daukate eta eduki al dute desagertuen bilaketan eta memoriaren eraikuntzan?
- Euskadin bertako motibazio politikoko indarkeriaren biktimekin lotuta egin den ekimenik ezagutzen al duzu?
- Euskadin motibazio politikoko indarkeriarekin lotuta gertatutako desagerpen-kasurik ezagutzen al duzu? (Lasa eta Zabalaren kasua)

Beste jarraibide batzuk:

Dokumentala ikusi ondorengo galderei buruz:

- Lehenengo galdera justizia trantsizionalaren oinarri diren printzipioak bermatuta ez egoteari buruzkoa da. Herrialdeen arteko konparazioa ere baliagarria izan daiteke gazteek Euskadin egin den lanaz duten pertzepzioari buruz hitz egiteko.
- Bigarren galdera bake positiboaren eta bake negatiboaren arteko desberdintasunari buruzkoa da. Zuzeneko indarkeriarik eza baketzat jotzean datzan arazoa landu liteke. Gainera, galdera horretatik abiatuta generoaren gaiari hel dakiokete, emakume indigenak talde ukitutakoenetako bat direlako.
- Hirugarren galderan lantzen da gertatu zenaren egia ezagutzea eta biktimarioak egingandakoa aitortzea beharrezkoa dela elkarrekin bakean bizi den gizarte bat lortzeko.
- Laugarren galderak genero-ikuspegia jorratzen du. Emakumeek modu bereizian bizi izan dituzte gatazka armatuak eta haiek izan dira gehienetan ahaideen bilaketa-lanen liderrak, Guatemalako kasuan behintzat.
- Bosgarren galderak bi gai lantzen ditu: batetik, ikasleek beren inguruneaz eta bertan dauden memoria-elementuez duten kontzientzia eta, bestetik, justizia errestituzioaren gaia, topaketa errestituzioaren kasu ezagunak aipatuz, adibidez, Maixabel Lasaren eta Ibon Etxezarretaren topaketa.
- Seigarren galderak Euskadin oharkabean gertatu ohi den kasu batera hurbiltzen gaitu, alegia, Lasa eta Zabalaren kasua. Izan ere, baliteke belaunaldi gazteentzat ezezaguna izatea eta galdera honek ezagutzera emateko aukera ekar dezake.

Proposatutako galderetatik, irakasleak landu nahi dituen gaiak sakontzeko baliagarriak zaizkionak aukeratu ditzake.



2. ARIKETA: Rol-dinamika

Iturria: Baketik.

Hezkuntza-asmoa:

- Enpatia eta rolak trukatzeko gaitasuna lantzea.
- Errespetuan oinarrituta entzuteko gaitasuna lantzea.

Zenbatetsitako denbora: 45 minutu.

Beharrezko materiala: Aulkiak, leku nahikoa duen gela bat eta erloju bat edo denbora kontrolatzeko gailu bat.

Garapena:

Ariketa honetarako, ikasleek zirkulu bat sortuko dute aulkiekin, eta erdialdean bi aulki jarriko dituzte. Aulkiotan pertsona bana eseriko da eta motibazio politikoko indarkeriaren biktimen rola antzeztuko dute. Ariketaren kontsigna izango da zeinu desberdinetako bi biktimen arteko lehen topaketa dela —bata ETaren biktima da eta bestea, aldiz, Estatuko Segurtasun Indarren edo beste talde baten (GAL, Triple A...) biktima— eta biktima gisa izan duten esperientziaz hitz egiteko ezagutzen ari direla elkar.

Rol bakoitza gutxienez 4 minutuz mantendu behar da. Gero, taldeko beste norbaitek har dezake biktima-rola. Txanda hartu nahi duena, erdialdeko aulkietako batean esertzeko, aulkira hurbilduko da eta sorbalda ukituko dio une horretan biktima-rola antzezten ari den pertsonari, bere lekua hartuko duela jakinarazteko. Aldaketa egitean, une horretan hitz egiten ari denari txanda hartzen dionak aurreko pertsonak esandako azken esaldia errepikatuko du, elkarrizketaren haria ez eteteke. Parte-hartzaile guztiek besteen diskurtsoak errespetatzeko jarrerarekin hartu beharko dute hitza.

Beste jarraibide batzuk:

Ariketak ikasleen sormena eta espontaneotasuna eskatzen ditu, baita irakasleek elkarrizketa bideratzeko eta mantentzeko (isiluneak jasateko...) gaitasuna ere. Ariketa egitean, ikasleek entzute aktiboa praktikatzeko aukera izango dute, bestearen emozioekin, eta ez egoerarekin, enpatizatzeke saioan.



ITXIERA



Ixteko dinamika: **Ikaskuntzaren perlak**

Iturria: Baketik.

Hezkuntza-asmoa

- Gida didaktiko honetan agertu diren edo haiei sortu zaizkien gaiei, kontzeptuei, galderei eta beste elementuei buruzko amaierako gogoeta egitea.
- Bakoitzak berekin eramango dituen ikaskuntzak —perlak— partekatzea.

Zenbatetsitako denbora: 45 minutu.

Beharrezko materiala: Eskulanetarako materiala (orri zuriak, koloretakoak, errotuladoreak, artaziak, kola, ehunak, sokak...).

Garapena:

Ikasle bakoitzak deigarriena suertatu zaion edo jakin-min handiena piztu dion gaia aukeratuko du. Jarraian, eskulan bat sortuko du hautatutako gaiarekin lotuta ikasi edo sentitu duen horretan oinarrituta. Banaka eta isilik egin beharreko lana da. Behin eskulanak amaituta, ikasle bakoitzak sortu duena erakutsiko dio taldeari eta bere sormen-prozesua zuzendu duten gakoak azalduko dizkio.



BIBLIOGRAFIA

1. modulua

- Baketik. [2007]. *Curso de elaboración ética de conflictos*. 25. or.
- Barbero, A. et al. [2006]. «[Deconstruir] la imagen del enemigo». *Cuadernos de educación para la paz*. Pauko Kultura Eskola. 3. or.
- Calderón, P. [2009]. «Teoría de conflictos de Johan Galtung». *Paz y Conflictos* aldizkaria, 2. zk., 75. or.
- Pauko Kultura Eskola. *Violencia*. <https://escolapau.uab.cat/ca/violencia-2/>
- Galtung, J. [2003]. *Violencia Cultural*. Gernika-Lumo, Gernika Gogoratu.
- ICIP [2023/03/30]. *Pensar diferente no nos hace enemigos: nuevo audiovisual sobre los riesgos de la polarización tóxica*. <https://www.icip.cat/es/pensar-diferente-no-nos-hace-enemigos-nuevo-audiovisual-sobre-los-riesgos-de-la-polarizacion-toxica/>
- NBE [1948/12/10]. *Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala*. https://www.ohchr.org/sites/default/files/UDHR/Documents/UDHR_Translations/spn.pdf
- Bakerako Hezkuntzaren Mintegia - APDH [2000]. *Educación para la paz, una propuesta posible*. Catarata. Madrid.
- Stanford Encyclopedia of Philosophy [2023]. *Pacifism*. <https://plato.stanford.edu/entries/pacifism/>

2. modulua

- Argituz, giza eskubideen aldeko elkarteak [2021]. *Memoria partekatu baterantz: Legazpi. 1956tik 2021era bitarte gertatutako giza eskubideen urraketei eta indarkeriazko ekintzei buruzko txostena*. Legazpiko Udala.
- Argituz, giza eskubideen aldeko elkarteak [2017]. *Memoria partekatu baterantz. Lasarte-Orian, 1956tik 2016ra bitarte izan diren giza eskubideen urraketei eta indarkeria-ekintzei buruzko txostena*. Lasarte-Oriako Udala.
- OHCHR. [2011]. *Protección Jurídica Internacional de los Derechos Humanos durante los Conflictos Armados*.

3. modulua

- Argitze Historikorako Batzordea [1999]. *Guatemala Memoria del Silencio*. 1999.
- Egiaren Batzordea [2022]. *Mi cuerpo dice la verdad*. https://web.comisiondelaverdad.co/images/zoo/publicaciones/archivos/Mi_cuerpo_dice_la_verdad_V2022.pdf
- Magallón, C. [2007]. «De la reclamación de la paz a la participación en las negociaciones. El feminismo pacifista». *Género, Conflicto y Construcción de la Paz: Reflexiones y propuestas*, Espinar E., E. Nos [arg.], 21. or.
- Memoria virtual de Guatemala [d. g.]. *Compilación sobre Guatemala: Guatemala*. Hemendik hartuta: <https://memoriavirtualguatemala.org/>
- Mugen Gainetik [2017]. *Aproximación a la Participación de las Mujeres en la Pacificación Vasca*. 21. or.
- Nazio Batuak. Gatazketan Sexu Indarkeria Ezabatzeke Nazioarteko Eguna. <https://www.un.org/es/observances/end-sexual-violence-in-conflict-day#%3A~%3Atext%3DLa%20fecha%20fue%20elegida%20para%20la%20consolidaci%C3%B3n%20de%20la%20paz>
- Guatemalako Artzapezpiku Barrutiko Giza Eskubideen Bulegoa [1998]. *Informe Proyecto Interdiocesano de Recuperación de la Memoria Histórica - Guatemala Nunca Más*. Guatemala.
- Otero Martínez, J. [2024]. *Emakumeen parte-hartzea memoriaren eraikuntzan, Euskadiko eta Guatemalako esperientziak*. 9.-18. or.

- Bakearen Idazkaritza (2006). *Los Acuerdos de Paz en Guatemala*. Guatemala. Hemendik hartuta: <http://biblioteca.oj.gob.gt/digitales/44084.pdf>
- Guatemalako Giza Eskubideen Defendatzaileen Batasuna [d. g.]. Defendatzaileen egoerari buruzko urteko txostenak. Guatemala. Hemendik hartuta: <https://udefegua.org.gt/>

4. modulua

- Berghof Foundation [d. g.]. Peace Process. [<https://berghof-foundation.org/themes/peace-process>].
- Coomaraswamy, R. [2015]. *Prevenir los conflictos, transformar la justicia, garantizar la paz: Estudio mundial sobre la aplicación de la resolución 1325 del Consejo de Seguridad de las Naciones Unidas*. NBE Emakumeak: <https://wps.unwomen.org/resources/>
- NBE [2000], 1235. ebazpena. [<https://www.acnur.org/fileadmin/Documentos/BDL/2006/1759.pdf>]
- NBE Emakumeak. *Hechos y cifras: Mujeres, paz y seguridad*. [https://www.unwomen.org/es/what-we-do/peace-and-security/facts-and-figures#_Toc85731439]
- SSIFF, 60. edizioa [2012]. Zinemira Estrenos: *Mariposas en el hierro*. https://www.sansebastianfestival.com/2012/secciones_y_películas/7/4404/es
- Villellas Ariño, M. [2006]. *Hallar nuevas palabras, crear nuevos métodos: La participación de las mujeres en los procesos de paz*. Madril: Centro de Investigación para la Paz.

5. modulua

- NBE [1985/11/29]. *Delituen eta botere-abusuen biktimetzako funtsezko justizia-printzipioei buruzko adierazpena. Batzar Nagusiak egindako adierazpena*. <https://www.ohchr.org/es/instruments-mechanisms/instruments/declaration-basic-principles-justice-victims-crime-and-abuse#:~:text=18,->
- NBE [2004/08/03]. Zuzenbide-estatua eta trantsizio-justizia gatazkak pairatzen ari diren edo pairatu dituzten gizarteetan. Idazkari nagusiaren txostena. Nazio Batuetako Segurtasun Kontseilua. S/2004/616, 6. or. [<https://documents-dds-ny.un.org/doc/UNDOC/GEN/N04/395/32/PDF/N0439532.pdf?OpenElement>]
- NBE [2005/12/15]. Giza eskubideei buruzko nazioarteko arauen urraketa nabarien eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larrien biktimek errekurtsoak jartzeko eta erreparazioak eskuratzeko duten eskubideari buruzko oinarritzko printzipioak eta jarraibideak. Batzar Nagusiak emandako ebazpena. <https://www.ohchr.org/es/instruments-mechanisms/instruments/basic-principles-and-guidelines-right-remedy-and-reparation>
- Varona, G [2021]. *Introducción a la justicia restaurativa. Material de apoyo, formación Baketik*.

Ikus-entzunezko baliabideak eta material osagarria

1. modulua

- EduAlter hezkuntza-edukien basea: <http://historic.edualter.org/material/denip2004/index.htm>
- Cascón, P. eta Beristain, C. [d.g.]. *Juegos de comunicación: Barómetro de valores*. Edualter. <http://historic.edualter.org/material/denip2004/barometro.htm>
- ICIP. *Riesgos de la polarización tóxica: cómo hacerle frente* bideoa. ICIPTube: <https://www.youtube.com/watch?v=kOet4gLP6IY&t=2s>
- Mugen Gainetik [2020]. *¿Qué son los Derechos Humanos [DDHH]?* Youtube: https://www.youtube.com/watch?v=E_aEM9PlaZ0
- Mugen Gainetik [2020]. *Zer dira Giza Eskubideak?* Youtube: <https://www.youtube.com/watch?v=LLNbjbq0z0U>
- Pressnet [2007]. *¿Qué son los Derechos Humanos? Organización Unidos por los Derechos Humanos*. Pressnet: <https://www.youtube.com/watch?v=PPeRECua5CQ>

2. modulua

- Baketik. *Euskalkasua adierazpen artistikoetan*. <https://arte-euskalkasua.baketik.org/ikus-entzunezkoak-audiovisuales>.
- EITB [2016]. *Oinatz galduak / Las huellas perdidas*. <https://www.eitb.eus/es/nahieran/resultados/>.

3. modulua

- Genero Politiketako Zuzendaritza Nagusia. *Herramientas para abordar temas de género en el ámbito educativo. Material teórico y práctico*. Ministerio Público Fiskala, Argentinako Errepublikak. <https://www.mpf.gob.ar/direccion-general-de-politicas-de-genero/files/2018/12/Herramientas-para-abordar-temas-de-genero-en-el-ambito-educativo.pdf>
- Eleonore Pourriat. *Mayoría oprimida*. <https://www.youtube.com/watch?v=SpycNoki0Jk>
- Berghof Foundation [2023]. *I have to speak: Colombia [Short version]*, gaztelaniaz, ingelesezko azpituluekin. <https://www.youtube.com/watch?v=sX7s6rAburc>.
- NCren *Nunca invisibles, mujeres fariatas, adiós a la guerra* dokumentalaren pasarte bat: 4:30-11:05. <https://www.youtube.com/watch?v=gzmMzDwYe4Y>
- Mendiá, I. [2014]. *La división sexual del trabajo por la paz Género y rehabilitación posbélica en El Salvador y Bosnia-Herzegovina*. Madril: Tecnos.
- Mugen Gainetik [2017]. *La Participación de las Mujeres en los Procesos de Paz*. <https://www.mugengainetik.org/phocadownload/userupload/Resumen-Dossier%20de%20la%20investigacion.pdf>
- Mugen Gainetik [2017]. *Mujeres: Rosalina Tuyuc* (CONVIGUA Guatemalako Alargunen Koordinatzaile Nazionalako presidentea). Rosalinak emakumeek gatazketan dituzten esperientziez egindako gogoeta erakusten duen bideoa. Youtube: https://www.youtube.com/watch?v=l-ct_ecRq8A

4. modulua

- CIINPI Berdintasun Politiketaren Berritzeko Nazioarteko Zentroa. *Mariposas en el hierro. Mujeres en el camino para la paz*. Vimeo: <https://vimeo.com/418530539>
- GLENCREE EKIMENA. *Víctimas y memoria*. EITB: <https://www.eitb.eus/eu/nahieran/victimas-y-memoria/victimas-y-memoria/osoia/6249/49310/>

5. modulua

- Mugen Gaietika (2017). *Ozpinaren sindromea / Síndrome del vinagre*. Vimeo: (<https://vimeo.com/195310730>).
- Mugen Gaietika (2017). *Víctimas: Rosalina Tuyuc* (CONVIGUA Guatemalako Alargunen Koordinatzaile Nazionalen presidentea). Rosalinak biktimei buruz egindako gogoeta erakusten duen bideoa. Youtube: <https://www.youtube.com/watch?v=gkKpa4W7Uv4>
- Red Académica (2023). *Justicia Escolar Restaurativa en Bogotá*. (<https://www.redacademica.edu.co/justicia-escolar-restaurativa-en-bogota>)
- Sistiaga, Ion eta Alfonso Cortés-Cavanillas (2019). *ETA, el final del silencio: Zubiak*, 1. kapituluak [2. zatia]. Movistarplus. Youtube: (<https://www.youtube.com/watch?v=pdJlq5SBccc>)



baketik

E LANKIDETZARAKO ETA
ELKARTASUNERAKO
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN Y
SOLIDARIDAD